

GRADU AMAIERAKO LANA

“Eskola Kirola Irunen: Genero dibertsitatearen azterketa & Proposamen alternatiboa”



EGILEA:

OTEGI ARZAK

MIKEL

SUPERBISOREA:

GARAI IBAÑEZ DE ELEJALDE

BEATRIZ

JARDUERA FISIKO ETA KIROLN ZIENTZEN FAKULTATEA

4. MAILA

AURKIBIDEA:

1.- Sarrera.....	3
2.- Marko teorikoa.....	4
• 2.1. Zer da eskola Kirola.....	4
• 2.2. Eskola kirolerako motibazioak.	5
○ 2.2.1. Nerabetasuna	5
• Motibazio, pertzepzio eta erabilera ikerketa.....	5
• Auto-kontzeptua.....	6
○ 2.2.2. Motibazio ezberdintasuna Esp, Fra, Ita & Por.....	8
• 2.3. Genero ezberdintasuna gazteen artean, errealitatea.....	14
• 2.4. Eskola Kirol eta Kirol ereduak Europan	16
• 2.5. Eskola Kirol ereduak Espainian	19
• 2.6. Eskola Kirol ereduak Gipuzkoan	21
• 2.7. Irungo Eskola Kirol ereduaren bilakaera eta egungo planteamendua ...	22
3. Metodologia.....	27
• 3.1. Ikerketaren helburuak.....	27
• 3.2. Ikerketaren planteamendu metodologikoa.....	27
• 3.3. Parte-hartzaileak.....	28
• 3.4. Informazioa biltzeko tresnak.....	29
• 3.5. Ikerketa aurrera eramateko erabili den prozedura.....	29
4. Ikerketaren emaitzak eta interpretazioa.....	31
• 4.1. Irun hiriko Eskola kirolaren azterketa kuantitatiboa: analisi deskriptiboa.	31
• 4.2. Irun hiriko Eskola kirolaren azterketa kualitatiboa: elkarrizketak eskola kirolaren barnean.....	35
• 4.3. Kanpo faktoreen analisia: elkarrizketak eskola kiroleratik kanpo.....	29
• 4.4. Irungo eskola kirolaren oztopoak: Ondorio bilketa.....	42
5. Eskola Kirolaren proposamen alternatiboa.....	44
6. Ondorioak.....	50
7. Bibliografia.....	52
8. Eranskinak.....	54

GRAFIKO ETA TAULEN AURKIBIDEA:

Taulak:

1. Taula - Eskola kirolaren erabilgarritsuna.....	5
2. Taula - Eskola kirol partaide eta ez partaideen autokontzeptua.....	6
3. Taula - Eskola Kirol titular, ordezko eta ez partaideen autokontzeptua.....	7
4. Taula - Eskola Kiroleko genero arteko autokontzeptu konparaketa.....	7
5. Taula - Irunen 2007-2008 Ikasturtean Eskola Kirolean izena emandako taldeak.....	23
6. Taula- Irungo 2007-2008 Eskola Kirol ikasturteko egutegia.....	24
7. Taula- Irungo Eskola Kiroleko 2017-2018 ikasturteko egutegia.....	25
8. Taula – Irungo Eskola Kiroleko 2017-2018 izen emate datuak eta ehunekoak.....	32
9. Taula – Irungo 2017-2018 ikasturteko izen emate datuak.....	57

Grafikoak:

1. Grafikoa - Eskola Kirola praktika osasuntsu bezala.....	9
2. Grafikoa - Eskola Kirola eta bere antzekotasuna lehia kirolarekiko.....	10
3. Grafikoa - Eskola Kirolak olgetarako izan behar du.....	11
4. Grafikoa - Eskola Kirolare helburua irabaztea da.....	12
5. Grafikoa - Eskola Kirolean galtzeagatikoz kezka.....	12
6. Grafikoa - Eskola Kirola praktikatzen da lagunekin egoteko.....	13
7. Grafikoa – Irungo Eskola Kiroleko 2017-2018 ikasturteko izen emateak.....	32
8. Grafikoa - Irungo Eskola Kiroleko 2017-2018 ikasturteko Benjaminen datuak.....	33
9. Grafikoa - Irungo Eskola Kiroleko 2017-2018 ikasturteko Alebinen datuak...	34

SARRERA

Irungo Eskola Kirola, indarrean urte asko daramatzan eskolaz kanpoko kirol eskaintza bat da, helburutzat gaztetxoak kirol ohitura osasuntsuak garatzea, hezitzea eta ondo pasatzea daukana. Lan honen helburu nagusia Irungo Eskola Kirolaren barnean dagoen genero dibertsitatearen azterketa bat egitea eta, azterketatik ateratako ondorioetan oinarrituta, proposamen alternatibo bat egitea da.

Honetarako, Eskola Kirolaren ezaugarri ezberdin ugari aipatzen dituen marko teoriko batekin abiatuz, Irungo Eskola Kirolaren analisi kuantitatibo eta kualitatibo bat eskaintzen da, metodologia misto baten bidez. Jarraian, Irungo Eskola kirolean aurki ditzakegun oztopo nagusien bilketa bat egiten da, lehia, kirol eskaintza.. oztopo nagusizat eta nesken parte hartze baxuaren (%20a besterik ez) kausatzat agertzen zaizkigularik. Ondoren, behatu daitezkeen oztopo nagusiei irtenbide tresna gisa balio dezakeen proposamen alternatibo bat azaltzen da, eta Irungo komeni diren aldaketa nagusiak aipatzen direlarik (partiden izaera aldatu, kirol ezezagun gehiago barneratu..).

Azkenik, ondorioen atalean, azpimarratzen da ezinbestekoa dela Irungo Eskola Kirolak daukan kutsu lehiakorra alde batera utzi eta kirol ere hezigarriago bat garatzeko aurrerapauso ezberdinak ematea, orokorrean Eskola Kiroleko parte hartzea indartuko duelarik eta, nagusiki, neskena.

Gai hau aukeratzearen arrazoi nagusia da Eskola Kirola herraminta oso indartsua daukagula neska-mutiletan kirol ohitura osasuntsuak barneratzeko eta eguneroko bizitzarako ezinbestekoak diren balioak garatzeko. Horretarako ezinbestekoa da Eskola Kirolean lehia albo batera uztea eta kooperatibitateari, enpatiari.. garrantzia gehiago ematea, pertsonak hezteko aukera emango digularik.

MARKO TEORIKOA

2.1. Zer da Eskola Kirola?

Eskola kirola, “eskola-umeen heziketa integratzaileari begira, hauen nortasuna era armoniatsuan garatzeari begira eta geroko adinetan ere kirola modu jarraituan egin ahal izatea bermatuko duen baldintza fisiko eta prestakuntzari begira dagoen sistema” bezala definitzen du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Definizio honen arabera, Eskola kirola sistema zabal bat bezala ulertu dezakegu, non hiru helburu nagusi bereizten diren: lehenbizikoa eskola-umeen heziketa integratzailea izango da (kirol munduan aplikaturikoa), non suposatzen den egunerokotasunean balio hezigarriak landuko direla heziketa hau lortzeko. Bigarrena nortasuna modu armoniatsuan garatea izango da, talde lana, kooperazioa.. bezalako baloreen bitartez umeen nortasuna hezte bilatuko delarik. Eta, azkeneko helburua, kirola modu jarraituan egitea bermatzeko baldintza fisiko eta prestakuntza lortzea izango da, hau da, kirol ohiturak barneratuz eta kondizio fisikoak ahal diren neurrian landuz, hurrek kirola eguneroko bizitzan barnera dezaten bermatzea.

Gipuzkoako Foru Aldundiak eskola kirolaz esaten duenaz gain, garrantzitsua da beste hainbat aspektu aipatzea. Eskola kirola, eskolako markoaren barnean ematen da, eskola orduetatik kanpo. Hauek normalean ikastetxeko klaseak amaitu ondoren eman ohi dira, eta monitore arduradun zehatzak daude honetarako (titulazio propioarekin), normalean ez dira gorputz heziketako irakasleak arduratzen esparru honetaz. Berez lehian oinarrituta dagoen egitura bat izan arren, helburuak bertan dibertsioa, gaitasun ezberdinen garapena, ohitura osasuntsuen ikasketa, kirol ohituren barneratzea, talde kohesioa.. eta abar dira, besteak beste. Era berean, eskola kirolaren bidez talde lana sustatu daiteke, ikasleen artean lan egiteko metodologia egokiak erabiliz, eta honekin integrazioa eta errespetua bezalako balioak modu zuzenean irakats ditzakegu. Ikus dezakegunez, Eskola Kirolak berez helburu oso hezigarriak ditu, eguneroko bizitzan oso baikorrak eta onuragarriak diren balio eta beste aspektuak bilatuz. Aspektu hezigarri hauek talde ezberdinetan integratzeko, oso garrantzitsua da monitorearen papera. Izan ere, oso argi utzi behar zaie ikasleei Eskola Kirolaren funtsa parte hartzea dela, eta irabaztea bigarren plano

batean utzi behar dela. Hori dela eta, monitoreak beti esfortzua baloratu behar du eta ikasle guztiak berdin tratatu behar ditu, jokatzeko momentuan edo haiei zuzentzerakoan inolako preferentziarik egin gabe.

2.2. Eskola Kiroleko motibazio, pertzepzio eta auto-kontzeptua:

Eskola Kirolaren definizio azkar bat eman ostean, ezinbestekoa da marko teorikoari forma ematen jarraitzeko Eskola Kirolaren barnean begiratu eta hainbat galdera planteatzea. Zein da **gazteen motibazioa** Eskola Kirola praktikatzeko orduan? Zein nolako pertzepzio eta erabilgarritasun iritzi dituzte eskola kirolari buruz? Nazio ezberdinetan zentratzen bagara, motibazio ezberdinak al daude? Eta, azkenik, zein nolako aldeak daude neska eta mutilen parte hartzean zentratzen bagara?

Amado, D. & Sanchez-Miguel, P.A. 2014an argitaratutako “Diferencias de género en la motivación y percepción de utilidad del deporte escolar” ikerketan erreparatu dezakegu alderdi estrintsekoa eta intrintsekoa kontuan izanda, ezberdintasunak aurki ditzakegula 11 eta 16 urte bitarteko neska-mutiletan Eskola Kirolarekiko dituzten motibazio eta erabilgarritasun pertzepzioan. Ikerketa honetan hiru aspektu nagusi neurtu ziren: lehenbizikoa motibazioa izan zen, aldagai gisa intrintsekoa (“Kirola egiten dut praktikatzean sentitzen dudana dibertsioagatik”), estrintseko identifikatua (“Jendea ezagutzeko modurik hoberena delako niretzat”), introiektatua (“Gaizki sentituko nintzelako ez banio nahikoa denbora emango”) eta kanpokoa (“Kanpoko jendearengan ongi ikusia egotea ahalbidetzen didalako”) bereizi ziren, eta azkenik baita desmotibazioa ere. Beharrei dagokienez, harremanetarako, kompetentziarako eta autonomiarako beharrak hartu ziren kontuan, eta azkenik Eskola Kirolari ikusten zitzaion erabilgarritasuna neurtu egin zen.

1. Taula - Eskola kirolaren erabilgarritasuna

Tabla 1. Descriptivos y prueba-T Student en función del género.

Variable	M	DT	α	Masculino	Femenino	t	gl	Sig.
<i>Motivación</i>								
Intrínseca	4,09	0,72	0,86	4,13±0,70	3,96±0,77	4,42	853,06	0,00
Identificada	3,66	1,09	0,60	3,74±1,07	3,44±1,12	5,29	890,64	0,00
Introjectada	3,95	0,81	0,64	4,00±0,79	3,81±0,82	4,70	892,79	0,00
Externa	3,18	1,04	0,74	3,34±1,00	2,74±0,98	11,78	947,92	0,00
Desmotivación	1,64	0,84	0,70	1,72±0,90	1,45±0,61	7,26	1363,31	0,00
<i>Necesidades</i>								
Relación	4,09	0,66	0,76	4,10±0,68	4,07±0,60	0,77	1053,09	0,44
Competencia	3,88	0,76	0,79	3,94±0,73	3,72±0,79	5,64	869,90	0,00
Autonomía	4,19	0,65	0,72	4,18±0,66	4,20±0,61	-0,71	996,18	0,48
<i>Utilidad</i>	4,39	0,70	0,73	4,39±0,72	4,37±0,65	0,58	1013,73	0,56

Amado D. & Sanchez-Miguel, P. A. (2014)

Emaitzei erreparatuz, ikus daiteke orokorrean emaitzak oso antzekoak direla mutil eta neskei dagokienez. Ezberdintasun nabarienak bi esparrutan aurkitu ditzakegu: Lehenbizikoa, motibazio intrintsekoan daukagu. Motibazio intrintsekoak esan nahi du jarduera zehatz bat egitea jarduera horren gauzatzeak eragiten dizun satisfazio hutsagatik, eta ikus dezakegu neskengan hau nahiko altua den arren mutiletan are altuagoa dela. Baina ezberdintasun nabariena motibazio estrintsekoan ikus dezakegu, mutilen balioa nahiko handiagoa izanez. Honekin ondorioztatu dezakegu orokorrean mutilek kirol praktikaren kanpo onurei garrantzia gehiago ematen dietela, ahala nola sariei, onarpen sozialari, exhibizionismoari edo lehiari, besteak beste.

Oinarrizko behar psikologikoei erreparatzen badiegu, ezberdintasun bakarra lehiakor sentitzearen aldagaian ikus dezakegu, orokorrean genero maskulinoa aseago sentituz. Hau izan daiteke orokorrean mutilak edozein jarduera motor gainditzeko gaitasun gehiagorekin ikusten dutelako euren burua, tradizionalki ekintza motorrak gizonen gaitasunetara egokituak egon direlako (Amado, D. & Sanchez-Miguel, P.A., 2014). Kirolaren erabilgarritasun pertzepzioari erreparatzen badugu, ikus daiteke hau bi kasuetan oso altua dela eta ez dela genero nagusitasunik ematen honetan.

Auto-kontzeptua ere gaur egun kirolean eta hezkuntzan karga asko daukan balore bat da. Auto-kontzeptua, pertsona batek bere buruaz daukan irudia gisa defini dezakegu, eta betidanik oso lotuta agertu da kirolari. Hainbat ikerketek lotura hau konfirmatu egin dute, esate baterako Ricardo Contreras-ek 2010ean argitaraturiko “El autoconcepto físico y su relación con la practica deportiva en estudiantes adolescentes” ikerketak. Gipuzkoan Grandmontaigne, A. G., eta Isasti, L. M. Z., 2000. urtean eginiko “La participación en el deporte escolar y el autoconcepto en escolares de 10 a 11 años de la provincia de Guipúzcoa” ikerketan, espero zena baieztatu egin zuten.

2. Taula – Eskola kirol partaide eta ez partaideen autokontzeptua

ESCALAS AUTOCONCEPTO		Coeficiente T	PARTICIPANTES N = 123		NO PARTICIPANTES N = 30	
			\bar{x}	S _x	\bar{x}	S _x
SDO	Apariencia física	0,101	42,48	8,9	39,46	9,0
	Habilidades deportivas	0,001**	36,81	6,0	32,76	6,3
	Autoconcepto no-académico	0,014**	108,47	17,8	99,50	16,91
	Autoconcepto general	0,122	228,17	35,5	217,36	27,2
PSPP	Rendimiento Deportivo	0,001**	17,15	3,3	14,90	3,1
	Condición física	0,000**	18,63	3,3	15,93	2,7
	Atractivo físico	0,851	18,10	3,7	17,96	3,0
	Fuerza	0,077	18,80	3,6	15,50	3,0
	Autoconcepto físico general	0,095	20,00	3,3	18,86	2,8
	Autoconcepto general	0,534	20,85	3,1	20,46	2,7

Grandmontaigne, A. G., & Isasti, L. M. Z. (2000)

Ondorioztatu egin zuten eskola kirolean parte hartzen zuten gazteek, parte hartzen ez zutenek baina auto-kontzeptu balore hobek ematen zituztela. Ezberdintasun nabariak kirol gaitasun, auto-kontzeptu ez akademikoan, kirol errendimenduan eta kondizio fisikoan eman zituzten. Eskola Kirolak gazteen pertsonalitatearengan auto-kontzeptuak bezainbesteko garrantzia daukan tresna bat indartzen laguntzen duela ikusteak, ikasleriaren gehiengoa Eskola Kirolean parte hartzera bultzatzeko beharra nabarmentzen du (Grandmontaigne, A. G., eta Isasti, L. M. Z., 2000).

Ikerketa ez zen soilik Eskola Kiroleko partaide eta ez partaideen arteko konparaketa bat egitera mugatu. Are gehiago, partaideen artean bi bloke bereizi egin ziren, entrenatzaileen irizpideen arabera: titularrak eta ordezkokoak.

3. Taula - Eskola Kirol titular, ordezko eta ez partaideen autokontzeptua

SUBESCALAS AUTOCONCEPTO		Coeficiente	TITULARES N = 76		SUPLENTEES N = 47		NO PARTICIPANTES N = 30	
			\bar{x}	S _x	\bar{x}	S _x	\bar{x}	S _x
SDO	Apariencia física	0,0151**	44,00	8,1	40,04	9,7	39,46	9,0
	Habilidades deportivas	0,0000**	39,01	4,8	33,25	6,1	32,76	6,3
	Autoconcepto no-académico	0,0004**	112,34	16,0	102,2	19,0	99,50	16,9
	Autoconcepto general	0,0082**	234,61	30,1	217,7	41,2	217,36	27,2
PSPP	Rendimiento deportivo	0,0000**	18,21	2,8	15,46	3,2	14,90	3,1
	Condición física	0,0000**	19,57	3,0	17,14	3,4	15,93	2,7
	Atractivo físico	0,0268**	18,80	3,4	17,00	3,9	17,96	3,0
	Fuerza	0,0013**	17,61	3,8	15,51	3,1	15,50	3,0
	Autoconcepto físico general	0,0540	20,41	3,0	19,34	3,8	18,86	2,8
	Autoconcepto general	0,4476	21,09	2,9	20,46	3,3	20,46	2,7

Grandmontaigne, A. G., & Isasti, L. M. Z. (2000)

Bereizketa hau egiteak, eskola kiroleko gazte askoren errealitatea ikusteko aukera eskaintzen du. Izan ere, estatistikak erreparatuz, ikus dezakegu nola kasu guztietan titularrek ordezkoei baina balore hobek ematen dituzten, eta ordezkoei baloreak ez partaideen baloreetatik oso gertu aritzen diren. Faktore honek ordezkoaren figura desagerrarazteko beharra argi uzten du, helburu hezigarria daukaten kirol jarduerak direlako, eta ez daudelako lehiara bideratuta. Honen lorpenean entrenatzaileek izugarriko pisua daukate, haien esku dagoelako ordezkoaren figura ezabatzea eta ikasle guztiekiko tratua berdina izatea.

4. Taula - Eskola Kiroleko genero arteko autokontzeptu konparaketa

SUBESCALAS AUTOCONCEPTO		Coefficiente T	MEDIAS	DESVIACIONES TÍPICAS
SDQ	Apariencia física	0,507	m = 42,36 f = 41,39	8,9 9,1
	Habilidades deportivas	0,001**	m = 37,70 f = 34,21	6,3 5,7
	Autoconcepto no-académico	0,082	m = 109,16 f = 104,10	19,0 16,4
PEPPI	Rendimiento deportivo	0,186	m = 17,0 f = 16,3	3,5 3,1
	Condición física	0,034**	m = 18,67 f = 17,50	3,6 3,1
	Atractivo físico	0,426	m = 18,30 f = 17,83	3,6 3,5
	Fuerza	0,014**	m = 17,24 f = 15,81	3,8 3,2
	Autoconcepto físico general	0,867	m = 19,82 f = 19,72	3,1 3,4
	Autoconcepto general	0,808	m = 20,71 f = 20,83	3,2 2,7

Grandmontaigne, A. G., & Isasti, L. M. Z. (2000)

Goiko taulan ikus daitekeen moduan ikerketa honetan mutil eta neskek (bai Eskola Kiroleko partaideak zirenak baita partaide ez zirenak ere) zeukaten auto-kontzeptuaren alderaketa bat ere egin zen. Bertan, ezberdintasun oso txikiak behatu ziren bi sexuen artean, gizonezkoen alde baina neurri oso txiki batengatik. Ezberdintasun nabariak kirol gaitasunetan, auto-kontzeptu ez akademikoan eta indarrean aurki ditzakegu, nahiz eta auto-kontzeptu orokorrean nesken balioa apur bat altuagoa izan. Eraitza hauen azalpena gizartearen partetik genero bakoitzari ematen zaion rol eta balorazio ezberdinengatik dela diote Grandmontaigne, A. G., eta Isasti, L. M. Z.-k (2000).


Berrero ere motibazioan zentratzen bagara eta Europako nazio ezberdinetako gazteen motibazioari erreparatzen badiogu, hainbat ezberdintasun behatu ditzakegu. Antonio Frailek eta Raul de Diegok 2006an eginiko ikerketa batean (Motivaciones de los escolares europeos para la práctica del deporte escolar. Un estudio realizado en

España, Italia, Francia y Portugal), Espainiako, Italiako, Frantziako eta Portugaleko 12 urteko gazteen interesak analizatu egin zituzten. Horretarako, hainbat galdera planteatu zizkieten, 1etaik 5erainoko eskala baten bidez erantzunez (1a puntuazio altuena zen, adostasun maximoa, eta 5a ordea baxuena).

Eskola kirolak osasun tresna gisa daukan onurei dagokionez, Portugaleko eta Espainiako gazteak dira adostasun gehien erakutsi zutenak Eskola Kirola osasunarekiko onuragarria den inguruan. Frantziar eta Italiar gazteek, ordea, Eskola Kirolak osasunarekiko duen erlazioan lotura txikiagoa ikusten zuten. Hala ere, ikus daiteke orokorrean herrialde guztiek adostasuna erakusten zutela Eskola Kirol eta osasunaren arteko erlazioarekiko.

1. Grafikoa - Eskola Kirola praktika osasuntsu bezala

El deporte escolar como práctica saludable




Fraile, A. & de Diego, R. (2006)

Osasunaren hobekuntza eta mantentzea gazte eskolarrak kirol praktika burutzeratik gehien motibatzen dituen arrazoitzat jo dezakegu, ikerketa honetako zein beste ikerketa batzuetako (Velazquez & Hernandez, 2001 edo Torre, 1998) emaitzei erreparatuz gero. Hala ere, esan beharra dago jarduera fisikoa osasuntsua izango dela beti ere baldintza moderatu batzuen pean egiten denean eta inoiz ez denean gehiegizko eskaera bat ematen (adin hauetan ez duelako jarduera fisikoko ohitura osasuntsuak eraikitzen laguntzen). Hori dela eta, Eskola Kirolaren helburua beti gizabanakoaren gozamina izan behar da, eta gazteei higie, ohitura osasuntsu, lesioen prebentzio, norbanakoaren onarpen.. bezalako elementuak irakatsi behar zaizkie (Velazquez & Hernandez, 2001) .

Gazteei Eskola Kirolak lehiaketarekin daukan erlazioaren inguruan galdetzean, orokorrean lotura gutxi ikusi dute bi elementu hauen artean. Portugal izan zen emaitza baxuenak azalerratu zituen herrialdea (3,47 batekin, hau da, orokorrean lotura nahiko eskasa ikusiz), eta Espainia eta Italiak emaitza nahiko antzekoak

dituzte (3,17 eta 3,19). Frantziaren kasuan ordea, ikasleek orokorrean lotura gehiago ikusi zuten Eskola Kirola eta lehiari dagokionez beste nazioekin alderatuz (2,51).

2. Grafikoa - Esola Kirola eta bere antzekotasuna lehia kirolarekin




Fraile, A. & de Diego, R. (2006)

Ortuzar (2004)-ren arabera, lehiaketak gazteengan modu baikorrean eragin dezake (nortasunaren eraikuntzan, borroka espirituan, agresibitatearen kontrolean..) baina baita modu ezkorrean ere (estresa, auto-estima galera, bortizkeria eta agresibitatearen igoera..). Ikerketa asko daude diotenak lehiako kirolak jokabide bortitzen agerpena areagotu egiten duela (Bakker, 1993 edo Buceta, 1998 besteak beste), baina hau beti ere eskola kirola garatzen den esparru eta monitoreak transmititzen duenaren arabera izango da.

Ikasleei galdetu zitzaizenean ea Kirolak olgetarako edo atsegin hartzeko egitura izan behar zuen, Espainiarrak (2,00) eta Portugaldarrak (1,99) izan ziren olgetarako modeloarekin adostasun gehien erakutsi zutenak, eta Frantziar (2,14) eta Italiarrek (2,13) balore apur bat txikiagoak erakutsi zituzten.

3. Grafikoa - Eskola Kirolak olgetarako izan behar du




Fraile, A. & de Diego, R. (2006)

Hala ere, Freire (2003)-ren arabera, Eskola Kirolak mantentzen duen egiturak (kirol federakuntzen eta entrenatzaileen ikuskaritza eta kontrolpean egonda) gehiago gerturatzen du modelo lehiakor batera olgetarako modelo batera baino. Beraz, nahiz eta barnetik (entrenatzaile eta ikasleen aldetik) olgetarako modelo bat bezala ikusten den Eskola Kirola, kanpotik ematen duen inpresioa ezberdina dela esan dezakegu.

Ikasleei galdetu zitzaizanean ea Eskola Kirola burutzen zuten irabazteko helburuarekin, batz besteko media 3,86koa izan zen, beraz ondoriozta dezakegu Eskola Kirola egitearen helburua olgetarako eta ludikoa dela, eta ez horrenbeste irabazi eta arrakasta izatearena.

4. Grafikoa - Eskola Kirolare helburua irabaztea da




Fraile, A. & de Diego, R. (2006)

Beraz ikus dezakegu orokorrean eskola kirolean izena ematen duten gazteen helburua ondo pasatzea eta lagunekin egotea direla. Hala ere, ikus dezakegu Italiar

eta Portugaldar gazteetan irabaztearen joerari garrantzia gehiago ematen dietela Espainiar eta Frantsesekin alderatuz. Elkarrizketa ezberdinetan jaso den moduan, Italian gazteetan eskola garaian lehiari ematen dioten garrantziak espiritu lehiakor handiago bat sortzen du adin txikienetatik (Fraile, A. & de Diego, R., 2006)

Galtzeagatiko kezkarri begiratzen badiogu, ikus dezakegu orokorrean galtzeagatiko kezka nahiko baxua dela, beraz olgetarako helburu bati garrantzia gehiago ematen diotela. Frantzian (3,48) bereziki arreta gutxi eman zioten galtzeari, Espainiagatik jarraituz (3,08) eta azken postuan Italia eta Portugal daude, (2,739 batekin biak).

5. Grafikoa - Eskola Kirolean galtzeagatiko kezka




Fraile, A. & de Diego, R. (2006)

Azken bi grafikoak erreparatuz, ikus dezakegu Italia eta Portugalen orokorrean, nahiz eta berez Eskola Kirola olgetarako tresna bat bezala ikusi eta ludikotasunari garrantzia gehiago eman, Espainia eta Frantzian baina garrantzia gehiago ematen zaiola irabazteari eta galtzeak ere pisu gehiago daukala.

Azkenik, galdetu zitzaien ea Eskola Kirola egitearen helburuetako bat lagunekin egotea zen. Grafikoan erreparatuz, ikus daiteke nola ikasle Italiarren eta Frantsesek garrantzia gehiago eman zioten aspektu honi (2,5 eta 2,6 aurrez aurre) Espainiar eta Portugaldar ikasleekin alderatuz (3,25 eta 3,1).

6. Grafikoa - Eskola Kirola praktikatzen da lagunekin egoteko

Práctica el deporte escolar para estar con los amigos



Fraile, A. & de Diego, R. (2006)

Elkarrizketetan ikasle Espainiarrek esan zuten kirola praktikatzen zuten gazteek gainontzekoekin erlazionatzerakoan erraztasunak izaten zituztela, batak besteekin elkarbizitzen ikasten dutelako. Frantziar ikasleek esan zuten eskola kirola euren artean harremanak hobetzeko tresna bat dela, eta klasean harreman gutxiago zuten ikasleekin erlazioa hobetzeko aukera ematen ziela.

Beraz, Antonio Fraile eta Raul de Diegoren (2006) azterketa laburbilduz, esan dezakegu ikasleek Eskola Kirolean parte hartzeko motibazio gisa nabarmenenak **osasuna mantentzea, lagunekin egotea eta pertsona bezala garatzea** direla. Kirolean lehiaketak bitarteko baten funtzioa betetzen du helburu bat baina gehiago, olgetarako jardueren praktika nagusitasun bat nabarmenduz. Era berean, ikasle guztiek (euren gaitasunak kontuan izan gabe) parte hartu dezaketen jarduerak hobeto ikusiak daude kirol praktika tradizionalak baino. Antonio Frailek eta Raul de Diegok (2006) ondorioztatzen dute Eskola Kirola eskolara lotuta egon behar den bitartean, parte hartzeari eta olgetarako jarduerari lehentasuna emanez, kirol federatuaren ardura izan behar dela lehiako kirolagatik erakarriak diren ikasleak bereganatzea, azken hauek parte hartze hutsarekin ez direlako konformatzen eta helburutzat irabaztea dutelako.

Esan behar da goian agertu diren elementu desberdinetan ez dela genero bereizketarik egiten, honek izango lukeen eragina ikusezin eginez. Baina aipatu behar da neskek pisu handia izan dutela ikerketako datu askorengan. Izan ere, ikerketan neskek emandako datuei erreparatuz, ikus daiteke nola hauek lehiako jarduerari, irabazteari eta famatuak izateari garrantzia gutxiago ematen diotela mutilek

baino. Are gehiago, interes gehiago erakusten dute parte hartzean eta kirol ezberdinen ikaskuntza teknikoan, emaitzen lorpenean baino. Beraz, ondoriozta dezakegu ikerketan datuak genero ezberdintasunen arabera agertuko balira, orokorretan mutiletan irabazteak pisu gehiago izango lukeela, eta nesketan ordea askoz ere pisu gutxiago. Ortuzarren (2004) arabera, Eskola Kirol praktikaren inguruko ikerketa guztietako daturik esanguratsuena partaidetza aldetik genero artean aurki dezakegun ezberdintasuna da, herrialde guztietan mutilek neskek baina nabarmenki parte hartze handiagoa dutelako (kasu batzuetan, datuak hirukoiztera iristen direlarik).

2.3. Genero ezberdintasunaren errealitatea:

Kontuan izan behar da momentura arte ikusiriko ikerketa gehienetan soilik eskola kirola burutzen zuten sektorea hartu zela kontuan. Zer gertatzen da emaitzetan, sektore gisa 8-16 urteko adina dituzten neska mutil guztiak hartzen baditugu eta ez bakarrik eskola kirola egiten dutenak?

Emaitzak, zoritxarrez, asko aldatzen dira. Ikerketa ugari daude honen inguruan, eta hauetako batek (Alvariñas Villaverde, M., Fernandez Villarino, M. & López Villar, C. 2009) ondorioztatu du mutilek maiztasun, intentsitate eta iraupen luzeagoarekin burutzen dutela jarduera fisikoa, gorputz heziketako praktikan interes handiagoa erakusten dutela, kirol uzte maila baxuagoak aurkezten dituztela, klub gehiagotan parte hartzen dutela, etorkizuneko kirol praktikaren inguruan helmuga altuagoak dituztela eta nabarmenki neskak baina aktiboagoak direla. Honetan esan beharra dago pisu handia daukala orokorrean kirol klubaren eskaintza bideratuagoa dagoela mutilentzat nesKentzat baino.

Kirol uzte tasan ere (27,2%koa dena) gehiengoa neska da. Beste ikerketa batzuk kontuan hartuta, Alvariñasek (2004) eginiko ikerketa aztertzen badugu behatu dezakegu mutilak neskak baina hiru aldiz gehiago parte hartzen dutela kirol lehiakorren burutzean, eta aisialdiko kirolen praktikan ere parte hartzea handiagoa dela. Asteaz zehar jarduera fisikoa burutzeko maiztasuna kontua hartuz gero, ezberdintasunak ere nabariak dira neska eta mutilen artean. Neskek sedentarismo maila garrantzitsu bat aurkezten dute, eta mutilak ordea maila nahiko egoki batean kokatzen dira.

Izan ere, Garcia J. N.-ren (2009) arabera, emakumezkoek Jarduera Fisikoa gizonezkoen berdintasunarekin burutzeko faktore mugatzaile asko daude: Errefortzu sozialaren gabezia (emakumezkoen talentuari ez zaio errekonozimendu berdina ematen), sozializazio modu desberdinak, neskentzako kirol eskaintza urritasuna, komunikabideen arreta eskasa.. ondorioz, emakumeak oraindik oztopo asko aurkitzen ditu bere askatasuna mugatzen dituenak. Era berean, esklusio mekanismoek, aurreiritziek eta estereotipoek pisu handia daukate gizartean.

Beraz, ikus dezakegu eskola kirolaren barnean genero ezberdinen arteko ikuspegiak nahiko orekatuak dauden arren, gizarte osoa kontuan hartzen badugu errealitatea oso ezberdina dela. Orokorrean nesken jarduera fisikoko parte hartzea nahiko eskasa da, eta honen ispilu argia daukagu Irungo benjamin zein alebinetako nesken partaidetza. Bi adinak kontuan izanda, 113 neskek hartzen dute parte Irunen eskola kirolean, mutilen kopurua 477 den bitartean (laukoitza). Datu hauek, Alvariñasek (2004) eta beste autoreek esandakoa baieztatu besterik ez dute egiten, nesken errealitatean gaur egun oraindik zeregin asko dagoelako beraien kirol partaidetza areagotzeko.

Kontuan izan behar da, arazoa agian ez dagoela gizartean bakarrik, eskola kirolaren egituran ere aldatu beharreko gauzak egotea gerta daiteke. Izan ere, eskola kirolean tradizionalki gizonenak izan diren kirolak nagusitzen dira: Futbola, saskibaloia eta eskubaloia. Egia da beste kirol batzuk ere aurrera eramaten direla, ahala nola errugbia, pilota (asteburu batean), igeriketa (asteburu batean), atletismoa (asteburu batean), mahai tenisa (asteburu batean) edota herri kirolak (asteburu batean), baina ikusten den bezala salbuespen hutsa besterik ez dira. Honek esan nahi du asteburuaren %80,7an tradizionalki gizonezkoenak diren kirolak burutzen direla (errugbya tradizionalki gizonezkoentzat izan den kirol bat bezala kontuan hartuta), eta urte osoko %20a baino denbora gutxiago eskaintzen dela gainontzeko kirol ez hain ohikoak praktikatu eta ezagutzeari. Ondorioz, ikasleek aukera gutxi daukate kirol ez-ohiko horiek sakonki ezagutzeko eta jarraipen minimo bat ematea ezinezkoa da eskola kirolaren barnean, nahi izatekotan eskola kirolek kanpo bilatu beharko dutelarik. Baina, azken finean, nahiz eta kirol berri horietako bat gustuko izan, zama handia dauka ikasleengan “berdinen arteko harremanak”, hau da, kirol praktikaren

barnean lagun edo ezagunen bat izateak, Escudero, J. A.k 2012an Eskola kirolaren inguruan Segovian egindako ikerketan ikusi zuen bezala.

Honek argi uzten du Irunen Eskola Kirol sisteman berritasunari garrantzia gutxi ematen ziola eta kirol ohikoenen praktika sustatu eta bultzatzen dela nagusiki. Beraz, gerta daiteke nesken parte hartzea hain baxua izatearen arrazoia (partaide guztien %19 a besterik ez) eskola kirolaren sistema bera izatea. Gainera, kontuan izan behar dugu eskola kirolean lehiaketa egitura jarraitzen dela (nahiz eta, denok dakigun bezala garrantzitsuena parte hartzea den eta ez irabaztea) eta aspektu horrek ere eragina dauka lehia gustuko ez duten pertsonetan (hauek, orokorrean, neskak izan ohi dira Antonio Fraile eta Raul de Diegok 2006an egindako ikerketan ikusi zen bezala). Izan ere, nahiz eta jakin helburu nagusiak irabaztetik aldentuta daudela, taldearen barnean dauden pertsonen eta monitorearen jokabideek pisu handia izan dezakete lehia horren gustuko ez duten ikasleengan.

Honek, zalantza handi bat garatzen digu eskola kirol eta kirol federatibaoren artean dagoen aldearekiko. Izan ere, autonomia ezberdin batzuetan (Segovian PIDEMSG programa aplikatu aurretik, esaterako) eskola kirolean eredu federatiboa erreproduzitu besterik ez da egiten. Honek esan nahi du kirol bakoitzeko konpetizio lehiakor espezifikokoak aurrera eramaten direla, aldi berean konpetizio lehiakor federatiboak eta konpetizio lehiakor eskolarrak egonez (Monjas Aguado, 2015). Errealitate honek eragiten du kirol enfokea lehiarekin erlazionaturiko baloreen promozioan zentratu egiten dela, trebeen aukeraketa parte hartzearen aurretik, espezializazioa formakuntza global baten gaintetik eta lehia kooperazioaren aurretik ipiniz.

2.4. Kirol eredu nazio ezberdinetan:

Gazteen errealitatetik pixkat aldentuz eta Eskola Kirolaren zein orokorrean kirolaren egituraketan zentratuz, ezinbestekoa da Espainia zein Europako beste nazio garrantzitsu batzuen kirol antolakuntzaren egoeraren analisi bat egitea. Honek, nazioen arteko aldeak ikustea eta Europako nazioen egoera hobeto ulertzea ahalbidetuko digularik. Honetarako, Llopis Goig, R.-ek 2016ean argitaratu zuen “Participación deportiva en Europa: políticas, culturas y prácticas” liburuan

oinarrituta, herrialde ezberdinen analisi bat aurkeztuko da, Ipar Europatik hasiz, Mendebalde Europa, zentro Europa eta Ekialdeko Europatik igaroz eta hego Europan amaituz.

Eskandinavian zentratuz, **Finlandiari** dagokionez, kirolak eta Jarduera fisikoak rol oso garrantzitsu bat betetzen dute gizarte finlandiarrean. Orokorrean gizartea nahiko aktiboa da, eta kirolak nazio identitatea islatzeko tresna gisa funtzionatzen du. Hala ere, autore batzuk diote gaur egun kirol antolakuntza eta parte hartzea Finlandian krisian daudela (joera ekonomiko eta gizarte tendentzia aldaketengatik). Mugimenduaren eta jolasaren tendentzia naturala haur eta gazteetan behera egiten dabil. Gizarte Finlandiarraren eta euren kultura fisikoaren helburu nagusia kirola modu egokian antolatu eta bideratzea da, datorren urteetan gizartean inpaktu baikor bat (termino sozial, ekonomiko eta osasuntsuetan) izaten jarrai dezan.

Danimarkan, gobernuak hezkuntza erreforma bat onartu du, eskola orduak luzatuz eta bertan gorputz hezkuntzari ordu gehiago emanaz. Helburua da kirol klub lokalen parte hartzea sustatuz egitea, klaseetan eta eskola jardueretan inplikatur. Plan hau martxan da 2014tik, eta nazio esparruko kirol antolakuntzek ondo erreakzionatu dute honekiko. Hala ere, klubetan barnean zalantzak agertzen hasi dira eskola orduak luzatzearekiko, honek entrenamendu orduekin bat egin dezakeelako eta eskola ordu askotan zehar bolondres asko euren lan postuetan daudelako. Hala ere, Kirol esparruan Gobernu eta udalerrien inplikazio ekonomikoari dagokienez, Danimarkan honek nahiko paper neutro eta eskasa betetzen du.

Europar Mendebaldera igaroz, **Holandari** dagokionez Kirol klubetan ikuspegia oso bideratuta dago gazteen parte hartzea sustatzera, gainontzeko gizarte sektore batzuk apur bat aldeztu dituelarik. Gobernuaren aldetik ere, ezarritako plangintza gehienak gazteen kirol inplikazioa areagotzeko helburuarekin egiten dira. Gazteen parte hartzea altua da: 6-12 urte bitarteko gazteetan, %82ak astero kirol jardueraren bat egiten du, ikasketa maila altuetan tendentzia hau are altuagoa eginez (eta kontrakoa). Hala ere, Holandaren kasuan erakunde pribatuek eragin handia izan dute kirol tendentziaren gorakadan (erakunde publikoek baina gehiago).

Belgikari dagokionez, kirol sistema oso baldintzatuta dago Belgikak daukan estruktura federalagatik. Hiru komunitate ezberdinetan bereizita dago, eta komunitate

bakoitzak bere kirol esparruko antolakuntza egitura propioa dauka. Finantziario publikoa elementu ezinbesteko bat da bai eliteko kirolean baita kirol basean ere. Udalerriek daukate (kirolari ekarpen gehien familiek egiten diote, batz bestez mila bostehun euro gastatuz) hauek banatzeko ardura. Eskolan dauden gazteen erdiak baina gehiago kirol klubetan hartzen du parte. Era berean, kirol klubez gain kirol esparru indibidualizatu eta informalak, kirol talde informalak bezala, gorakada jasaten ari dira azken urteotan. Hala ere, parte hartze hauetan faktore sozioekonomikoen eragina ikus daiteke.

Erresuma Batuan, 2008 eta 2010 bitartean, gobernu laboristak 755 milioi euroko inbertsioa egin zuen eskola kirol sare batean, euren jarduera fisiko eta eskola kirol plangintzaren parte gisa (adibidez, astean bost orduko derrigorrezko praktika ipini zuten). Hala ere, 2010ean koalizio kontserbadore batek hartu zuen gobernu zentrala, eta harrezkerotik eskola kirol sarea sistematikoki zapuzten joan da, eta eskoletan kirol lehiakorren promozioa sustatu da. Esaten da Erresuma Batuan eskola kirol esparruan epe luzera gobernuko plangintza gabezia dagoela. Fondo ekonomikoen areagotze bat egin da, eskoletan lehiaketa egiturako kirola sustatu dezaten irakasleek eta honela bertako parte hartzea areagotu dadin. Eskolarteko kirol lehiaketen garapena YST (Youth Sport Trust)-en ardura da.

Zentro Europari dagokionez, **Alemanian** erresponsabilitateen banaketa bat dago: Alde batetik, nazioak lehiaketako kirola sustatzeko ardura du, eta beste alde batetik, Komunitate eta Udalerrien ardura da masetan kirolaren promozioa egitea. Ondorioz, Alemanian ez dago maila nazionalen kirol praktika sustatzeko planik, Ingalaterran edo Austrian bezala.

Frantziaren kasuan, inkesta ugarik argi uzten dute sexu banaketa nabaria dagoela kirola egiterako unean, eta emakumezkoak kirol instituzionalizatu eta lehiakorretik aldendu egiten dira (ez gizonezkoak bezala). Kluba eta lehiaketa dira kirol antolakuntza egitura nagusiak gazte eta adoleszenteen artean Frantzian.

Gainontzeko herrialdeekin konparatuz, **Suizak** kirol praktika indize nahiko altu bat dauka orokorrean, eta gizartearen %20 inguruak kirol klubetan parte hartzen du. Bertan, partaideen bi herenak gizonezkoak dira, eta heren batek 20 urte edo gutxiago dituzte. Hau eta beste datu batzuk ikusita, errepara dezakegu Suizako klub

askok oraindik lehiaketara bideraturiko gazteen kirolaren modelo zaharrera eusten direla. Suizaren kasuan politika deszentralizatua nagusi denez, kirol politika nazionalen ezarpenerako esparrua oso mugatua da, soilik eskola kirol, antidojape.. eta beste eremu batzuetan aplikatzen dira. Gazteak eta Kirola plan nazionalari esker, Kirol klubek eta kirol promoziora bideraturiko eskolek autoritate publikoen diru laguntzak jasotzen dituzte (baita instalazioekiko laguntzak ere).

Ekialdeko European erreparatuz, **Polonian** jarduera fisiko egite tasa nahiko eskasa da, %45ak egiten du maiztasunarekin. Egia da azken urteotan igoera bat eman dela, baina oraindik garapen bidean dagoen herrialde bat da jarduera fisikoarekiko. **Bielorrusiaren** kasuan, kirol praktika indizean nahiko baxuak dira. Praktika joera hauek nahiko orekatuak dira gizon eta emakumezkoen artean, baina kirol dibertsifitate baxua dago. Kirol politikaren ardura gobernu zentralak dauka, eta ondorioz diru laguntza gutxi eta eskasak daude (diru gehiena instalazio eta infraestruturara handiei bideratuta daude, turistak erakartzeko helburuarekin) eta gainera, inbertsio hauek kirola obra publikoaren motor gisa ulertzen dute.

Azkenik, **Ipar European** zentratuz, **Italiaren** kasuan, Kirol eta Osasunarekin erlazionaturiko politiken deszentralizazioak, kirol parte hartze ezberdintasunak areagotu egin ditu erregio garatuenean eta gutxien garatuenean artean. Izar ere, erregio batzuen %88ko kirol parte hartzea daukaten bitartean, beste batzuk %42koa daukate. Izan ere, erregioen artean presupuesto banaketan ezberdintasun oso nabariak ikus ditzakegu (erregio batzuetan 20 milioiko presupuestoa dagoen bitartean beste batzuetan milioi erdikoa da presupuestoa). Ondorioz, ikus daiteke erlazio nabarmena dagoela presupuestoaren eta kirol parte hartze joeraren artean.

Portugali dagokionez, batz bestez gizonezkoek emakumezkoak baino kirol gehiago burutzen dute. Kirol praktikan pisu gehien daukaten elementuak ikasketak, errendimendu akademikoa eta klase soziala dira nagusiki. Hauek geroz eta altuagoak izan, geroz eta kirol praktika gehiago erreparatu daiteke (eta alderantziz).

2.5. Eskola Kirol eredia Espainian:

Behin Europako herrialdeen analisi bat eginda, Espainian zentratu gaitzke Llopis Goig, R.-en (2016) oinarrituz. **Espainian**, sektore publikoaren garrantzia oso handia da kirol esparruan. Udaletxeen ardura da herritarrei kirola eskuragarri bilakatzea, eta

Gobernu Zentralak kutsu orokorreko ardurak (koordinazioa, garrantzia nazionala duten ekintzen antolakuntza..) hartzen ditu bere gain. Udaletxeei finantziario ekonomikoa emateaz Gobernu Zentrala eta Autonomikoa arduratzen dira.

Nahiz eta kirol selekzio nazionalak garapen handia jasan duten azken urteotan, ezin dezakegu esan garapen hau gizarteko kirol praktikan eman denik. Nahiz eta tendentzia gorakada bat dagoen, Espainia European Unioko hemeretzigarren zenbakian dago kirol praktikari dagokionez, eta Espainiako tasa EUk ezarritako batz bestekoaren azpitik dago. Gainera, gizonezkoek daukaten kirola egiteko tendentzia emakumezkoena baina askoz ere handiagoa da. Hala ere, gazteen kirol batz bestekoa nahiko altua dela esan beharra dago gainontzeko adin tartekin alderatuz. Izan ere, Carlos Sergiok (Bizkaiako Foru Aldundiko Kultura Departamenduko asesorea) "Modelo de Deporte Escolar. Reflexiones y propuestas" (2017) hitzaldian azaleratutako datuen arabera, Bizkaiaren kasuan, 6-16 urte bitarteko gazteen %60ak astean 5 ordu edo gehiago bideratzen ditu kirol praktikara, tarte aktiboena 10-12 urte bitarteko neska mutilena izanez (71,8%a).

Finantziarioari dagokionez, kirol esparrura bideraturik dagoen finantziario gehiena errendimenduko kirolera bideratuta dago (2011ean presupuesto osoaren %81 honetara bideraturik joan zen). Gainontzeko dirua Eskola Kirol, unibertsitateko kirol eta kirol ikerketa zientifikoetara bideraturik doa. Beraz, kirol federazioek jasotzen dute diru gehien. Honek esan nahi du, Espainian kasu batzuetan federazioek jasotzen duten diru laguntza eskola kirolera bideraturik dagoela eta beste batzuetan ordea ez, segun eta zein autonomiatan federazio batzuk hartzen dutelako parte eskola kirolaren garapenean.

Eskola kirolaren antolakuntzari dagokionez, ikus dezakegu komunitate batzuetan programak kirol eskola edo kirola sustatzeaz arduratzen diren zentroekin lotuta agertzen direla, eta beste batzuetan ordea nagusiki errendimendura bideraturik dauden programak dituztela (Arufe-Giráldez, V. & Barcala-Furelos, R., 2017). Beraz, kasu batzuetan eskola kirolaren gestioaz Kirolen Zuzendaritza Orokorra bezalako organismoak arduratzen dira, eta beste batzuetan ordea Hezkuntza Kontseilua bezalako organismoak. Aspektu hau erreparatuz oso argi ikus daiteke nola autonomia batzuetan gehiago hezkuntzaren sustapena bilatzen den (hezkuntza

zentroez bideratua nagusiki) eta beste batzuetan gehiago errendimendu bidea (kirol federazio, klub eta entrenatzaileengandik sustatua).

2.6. Eskola Kirol eredia Gipuzkoan:

Gipuzkoan, Eusko Jaurlaritzarekin adosturiko dekretu baten arabera, eskola kiroleko ekintzak (lehiakorrak izan edo ez) ikastetxeen bitartez egituratuko dira. Era berean, hauek euren parte diren ikasle guztiei kirol praktika ahalbidetzeko arduradunak izango dira, antolakuntza arloaz zein arlo hezitzaile eta administratiboaz arduratuz. Hala ere, ikastetxeen izaerak (publikoak, pribatuak edo ikastolak) eragina dauka eskola kirolak jarraituko duen egituran.

Gipuzkoan, Iñaki Iruretagoyenak Kirolarte erakundearen bidez 2010ean eginiko “Solución estructural del Deporte Escolar en Gipuzkoa” ikerketan oinarrituz, Eskola Publikoak nagusi dira (147) Eskola Pribatuekiko (97) eta baita Ikastolekiko ere (58). Hala ere, Eskola Kirol matrikulatze datuei erreparatzen badiegu, datuak kopuruen proportzioekiko kontrakoak dira. Ikastoletan aurki dezakegu Eskola Kirolean matrikulaturiko ikasle kopuru gehiena (%36), eskola pribatuengatik jarraituz (%34) eta azken tokian eskola publikoak daudelarik (%30). Honetan eragin handia dauka Ikastola eta Eskola Pribatuek eskola zentro handienak dituztela, eskola publikoak zentro txikiago gehiago dituen bitartean. Gainera, azken urteotako Eskola Kirol matrikulatzeetan ematen ari den jaitsierak egoera are zailagoa bilakatu dezake Eskola Publikoentzako.

Ikastetxe bakoitzeko Eskola Kirolak gestio estruktura propioak izan arren, hauek askotan komunak izan ohi dira beste ikastetxeekiko. Esate baterako, aspektu komun jeneralizatu bezala ikastetxeko koordinazio funtzioak betetzen dituen pertsona bat dagoela ikus dezakegu. Hala ere, Eskola Kirolaren egituraketaz arduratzen den koordinatzaile honen eta gurasoen asoziazio zein irakasleen artean hezkuntza aspektuetan erlazio artikulatu edo egonkorak topatzea ez da bat ere ohikoa. Ondorioz, orokorrean baieztatu daiteke Eskola Kiroleko jardueretako helburuak eta hauen garapena erabat aldentuta dagoela eskolan bertan burutzen diren gainontzeko jardueretik, gorputz heziketako irakasgaietan ematen diren jarduerak barne.

Gipuzkoako Eskola Kirolaren egituraketa hezitzailean aurki dezakegun beste oztopo bat, bertako monitore batzuen izaera bolondres edo ez-profesionala da. Egia da gaur egun aukera dagoela Eskola Kiroleko Monitore titulua lortzeko, baina gero ikastetxe askotan hau ez dute eskatzen eta inolako prestakuntzarik gabe jarduteko aukera ematen da. Beraz, aspektu honek are gehiago uzten du begi bistan Ikastetxe eta Eskola Kirol Monitoreen koordinazio beharra, Eskola Kirola ikastetxeen ardura propioa den heinean Gorputz hezkuntzako departamenduaren parte hartzea gomendatzen delako, aspektu amankomunak garatzeko.

Gipuzkoako Eskola Kirol egituren finantziario iturriei dagokienez, ikastetxe gutxi jotzen dute partaideen ekarpen zuzenetara (hauek normalean gurasoen asoziazio eta ikastetxeei eginiko ekarpen zuzenak direlarik). Udaletxeetatik lorturiko ekarpenak, nahiz eta eskasak izan, partaideen ekarpen zuzenak baino entitate handiagokoak dira. Eskola publikoak dira joera gehien daukatenak partaideen ekarpen zuzenenei errekurritzera. Udaletxeek eskola kirolean eginiko ekarpen nagusiei dagokienez, instalazio publikoak uztea nagusitzen da, asteburuetako jarduerak aurrera eramateko ezinbestekotzat jo dezakeguna.

Laburbilduz, Gipuzkoako zentro eskolarren egungo egoerak erakusten digu Eskola Kirolaren arretara bideraturiko azpiegitura espezifiko kopuru mugatu bat dagoela (hauek nagusiki Eskola Pribatu eta Ikastetxeetan daudelarik), nahiz eta azken urteotako eboluzioa behatuz estruktura hauen garapenerako tendentzia bat eta estruktura berrien sorkuntzarako joera bat ikus daitekeen. Zentro txikietan daude oztopo nagusienak azpiegitura hauek garatzeko, eta hori dela eta etorkizun batean ezinbestekoa izango da zentro ezberdinen arteko asoziazio prozeduren dinamizazioa (Iruretagoyena, I., 2010).

2.7. Irungo Eskola Kirol ereduaren bilakaera eta egungo planteamendua:

Eskola Kirolaren hastapenetan, honek zeukan berezitasun nagusia nesken eta mutilen ligak bereizita zeudela zen. Ondorioz, neskak nesken aurka jokatzen zuten eta mutilak mutilen aurka, nahiz eta ia beti kirol berdinak praktikatzen zituzten aldi berean (berezitasun bakarra neskek softbola ere praktikatzen zutela zen, jardunaldiak osatzeko). 2007-2008 urtean Eskola Kirolak zeukan egituraketaren taulan behatu dezakegu ikastetxe ezberdinetako 60 taldek izena eman zutela bertan, horietako 15

neskenak zirelarik. Mutilen kasuan, normalean kurtso bereko taldeak osatzen zituzten, nahiz eta hainbat kasutan bi kurtsoetako (baina kategoria berdineko) klaseak elkartu. Nesken kasuan ordea, ikastola ia guztietan (Txingudi Ikastolaren kasuan izan ezik) taldeak osatzeko bi kurtsoetako neskek elkarbiltzen zituzten, bai Benjaminetan baita Alebinetan ere.

Nesken kasuan, beraz, ohikoa zen urtebete zaharrago edo urtebete gazteagoak ziren nesken aurka lehiatzea, 8-12 adin tartean asko nabaritzen den diferentzia bat bezala defini dezakeguna. Arreta asko deitzen duen datu bat, Alebinen kategorian (hau da, 5. Eta 6. Mailetan) sei neska talde bakarrik egoteaz gain, horietatik lau Txingudi Ikastolakoak direla da, eta baita Ikastetxe pribatuek ez daukatela inolako parte hartzaile femeninorik. Kasu hauetan, izena ematen zuten neskek gutxi zirenez talde mistoak osatzen zituzten, eta ohikoa zen talde batzuetan neska gutxi batzuk ikusteak.

5. Taula - Irunen 2007-2008 Ikasturtean Eskola Kirolean izena emandako taldeak

BENJAMINAK				ALEBINAK			
<i>Futbola</i> <i>Saskibaloia</i> <i>Eskubaloia</i>	<i>Eskubaloia</i> <i>Futbola</i> <i>Saskibaloia</i>	<i>Saskibaloia</i> <i>Eskubaloia</i> <i>Futbola</i>	<i>Futbola</i> <i>Saskibaloia</i> <i>Eskubaloia</i> <i>Sofbola</i>	<i>Eskubaloia</i> <i>Futbola</i>	<i>Futbola</i> <i>Eskubaloia</i>	<i>Saskibaloia</i> <i>Futbola</i> <i>Eskubaloia</i> <i>Sofbola</i>	
Talde 1	Talde 2	Talde 3	Neskek	Mutilak 5.	Mutilak 6.	Neskek	
Elatzeta 3 El Pilar 3B Toki Alai 3B La Salle 3 Txingudi 3B Txingudi 3D San Vicente 3A San Vicente 3B	Belasko 3-4 Dunboa 3-4M Leka Enea 3-4M Toki Alai 3A Txingudi 3A El Pilar 3A	Elatzeta 4 Toki Alai 4A Toki Alai 4B Txingudi 4A Txingudi 4B Txingudi 4D El Pilar 4 La Salle 4A La Salle 4B S Vicente 4	Belaskoenea Elatzeta Toki Alai 3-4 Txingudi 3 Txingudi 4A Txingudi 4B El Pilar La Salle S Vicente	Dunboa 5M Toki Alai 5A Toki Alai 5B Txingudi 5A Txingudi 5B Txingudi 5D El Pilar 5 La Salle 5 Erain 5 San Vicente 5 Elatzeta 5A Elatzeta 5B Toki Alai 5D	Belaskoenea 5-6 Erain 6 Dunboa 5-6M Leka Enea 5-6M Toki Alai 6 Txingudi 6A Txingudi 6B El Pilar 6 La Salle 6 S Vicente 5-6	Belaskoenea Toki Alai A Txingudi 5A Txingudi 6A Txingudi 6B Txingudi 5B	

Urkiola Mujika, A. (2008)

Kirol eskaintzari dagokionez, Irungo 2007-2008 urteko egutegiko taulan daukagu garai hartan zein kirol burutzen ziren ikusteko aukera:

6. Taula- Irungo 2007-2008 Eskola Kirol ikasturteko egutegia

Jardunaldia	DATA	MUTILAK 1	MUTILAK 2	MUTILAK 3	NEKAK	MUT. 1. URTE	MUT. 2. URTE	NEKAK
1	20-urr	Futbola	Eskubaloia	Saskibaloia	Futbola	Eskubaloia	Futbola	Saskibaloia
2	27-urr	Futbola	Eskubaloia	Saskibaloia	Futbola	ATLETISMO 1, JARDUNALDIA		
3	03-az	ZUBIA						
4	10-az	ATLETISMO 1. JARDUNALDIA				Eskubaloia	Futbola	Saskibaloia
5	17-az	Futbola	Eskubaloia	Saskibaloia	Futbola	Eskubaloia	Futbola	Saskibaloia
6	24-az	Futbola	Eskubaloia	Saskibaloia	Futbola	Eskubaloia	Futbola	Saskibaloia
7	01-ab	Futbola	Eskubaloia	Saskibaloia	Futbola	Eskubaloia	Futbola	Saskibaloia
	08-ab	ZUBIA						
8	15-ab	Futbola	Eskubaloia	Saskibaloia	Saskibaloia	Eskubaloia	Futbola	Saskibaloia
	22-ab	GABONAK						
	29-ab	GABONAK						
	06-urt	GABONAK						
9	12-urt	Saskibaloia	Futbola	Eskubaloia	Saskibaloia	Eskubaloia	Futbola	Saskibaloia
10	19-urt	IGERIKETA 1. JARDUNALDIA Artaleku/Azken Portu				Eskubaloia	Futbola	Saskibaloia
11	26-urt	Saskibaloia	Futbola	Eskubaloia	Saskibaloia	Eskubaloia	Futbola	Futbola
12	02-ots	Saskibaloia	Futbola	Eskubaloia	Saskibaloia	Eskubaloia	Futbola	Futbola
13	09-ots	Saskibaloia	Futbola	Eskubaloia	Saskibaloia	Eskubaloia	Futbola	Futbola
14	16-ots	Saskibaloia	Futbola	Eskubaloia	Saskibaloia	Futbola	Eskubaloia	Futbola
15	23-ots	Saskibaloia	Futbola	Eskubaloia	Eskubaloia	Futbola	Eskubaloia	Futbola
16	01-mar	IGERIKETA 2. JARDUNALDIA Azken Portu / Artaleku				Futbola	Eskubaloia	Futbola
17	08-mar	Saskibaloia	Futbola	Eskubaloia	Eskubaloia	Futbola	Eskubaloia	Futbola
	15-mar	ASTE SANTUA						
	22-mar	ASTE SANTUA						
	29-mar	ASTE SANTUA						
18	05-abr	Eskubaloia	Saskibaloia	Futbola	Eskubaloia	Futbola	Eskubaloia	Eskubaloia
19	12-abr	Eskubaloia	Saskibaloia	Futbola	Eskubaloia	Futbola	Eskubaloia	Eskubaloia
20	19-abr	Eskubaloia	Saskibaloia	Futbola	Eskubaloia	Futbola	Eskubaloia	Eskubaloia
21	26-abr	ATLETISMO 2. JARDUNALDIA				Futbola	Eskubaloia	Eskubaloia
	3-mai	ZUBIA						
22	10-mai	Eskubaloia	Saskibaloia	Futbola	Sofbol	Futbola	Eskubaloia	Sofbol
23	17-mai	Eskubaloia	Saskibaloia	Futbola	Sofbol	Futbola	Eskubaloia	Sofbol
24	24-mai	Eskubaloia	Saskibaloia	Futbola	Sofbol	Futbola	Eskubaloia	Sofbol
25	31-mai	Eskubaloia	Saskibaloia	Futbola	Sofbol	Futbola	Eskubaloia	Sofbol

Urkiola Mujika, A. (2008)

Ikus daiteke kirol nagusiak, gaur egun bezala Eskubaloia, Futbola eta Saskibaloia zirela (nesken kasuan sofbola ere egiten zuten), eta ondoren beste ekintza gehigarri batzuk ere bazituzten, neska zein mutilek aurrera eramaten zituztenak: Benjaminetan, 2 burutan Atletismo jardunaldia egiten zen, eta beste 2 asteburuetan Igeriketa jardunaldia. Alebinen kasuan, ordea, soilik Atletismo jardunaldi bakarra burutzen zen.

Goian dauzkagun taulak adibide oso baliagarriak dira duela hamar urte Eskola Kirolak zeukan egiutura ulertzeko. Hala ere, egiutura honek denbora gutxiz iraun zue. Izan ere, neska gutxi izena ematen zuten, talde mistoak sortzeko erabakia hartu zuten Irungo Eskola Kirol arduradunek, baina, Irungo Kirol Ekintzen arduraduna de Javier Etxepareren hitzetan, "hainbat arazo zirela medio" berriro ere neska eta mutilen ligak bereizi egin zituzten.

Orduan, neskek elkar lehiatzeko nahiko talde izateko Hondarribiko neskekin batera liga formatu berri bat sortu egin zen. Hala ere, honek ez zuen arrakasta handirik izan,

eta azken urteotan ikastolek berdintasunaren alde eginiko eskaeren ondorioz, talde mistoen erabilpena egitea erabaki da.

Talde misto hauek aurrera eramaten dituzten ekintzei dagokienez, Irungo Eskola Kiroleko 2017-2018 ikasturteko egutegi taulan ikus dezakegu astebururo aurrera eramaten dituzten ekintzak:

7. Taula- Irungo Eskola Kiroleko 2017-2018 ikasturteko egutegia

Jardunaldia	Data	BENJAMINAK		ALEBINAK	
		Benjaminak 1	Benjaminak 2	Alebin 5	Alebin 6
1	Urriak 7	IGERIKETA AZKEN PORTU		RUGBY	RUGBY
2	Urriak 14	zubia	zubia	zubia	zubia
3	Urriak 21	SASKIBALOAIA	ESKUBALOAIA	RUGBY	RUGBY
4	Urriak 28	SASKIBALOAIA	ESKUBALOAIA	RUGBY	RUGBY
5	Azaroak 4	SASKIBALOAIA	ESKUBALOAIA	RAKETA KIROLAK	PILOTA
6	Azaroak 11	SASKIBALOAIA	ESKUBALOAIA	RAKETA KIROLAK	SASKIBALOAIA
7	Azaroak 18	TXINGUDI KROSA		ESKUBALOAIA	SASKIBALOAIA
8	Azaroak 25	RUGBY	RUGBY	ESKUBALOAIA	SASKIBALOAIA
9	Abenduak 2	RUGBY	RUGBY	ESKUBALOAIA	SASKIBALOAIA
10	Abenduak 9	zubia	zubia	zubia	zubia
11	Abenduak 16	RUGBY	RUGBY	ESKUBALOAIA	SASKIBALOAIA
GABONAK	Abenduak 23	GABONETAKO OPORRAK			
	Abenduak 30				
	Urtarrilak 6				
12	Urtarrilak 13	GURASOEN JARDUNALDIA		ESKUBALOAIA	SASKIBALOAIA
13	Urtarrilak 20	SASKIBALOAIA	FUTBOLA	ESKUBALOAIA	RAKETA KIROLAK
14	Urtarrilak 27	SASKIBALOAIA	FUTBOLA	PILOTA	RAKETA KIROLAK
15	Otsailak 3	ESKUBALOAIA	FUTBOLA	SASKIBALOAIA	FUTBOLA
16	Otsailak 10	ATLETISMOA		SASKIBALOAIA	FUTBOLA
17	Otsailak 17	ESKUBALOAIA	FUTBOLA	SASKIBALOAIA	FUTBOLA
18	Otsailak 24	ESKUBALOAIA	FUTBOLA	SASKIBALOAIA	FUTBOLA
19	Martxoak 3	ESKUBALOAIA	FUTBOLA	ATLETISMOA	
20	Martxoak 10	ESKUBALOAIA	FUTBOLA	SASKIBALOAIA	FUTBOLA
21	Martxoak 17	HERRI KIROLAK		ATLETISMOA	
22	Martxoak 24	FUTBOLA	PILOTA	SASKIBALOAIA	FUTBOLA
ASTE SANTUA	Martxoak 31	ASTE SANTUA			
	Apirilak 7				
23	Apirilak 14	FUTBOLA	SASKIBALOAIA	FUTBOLA	ESKUBALOAIA
24	Apirilak 21	FUTBOLA	SASKIBALOAIA	FUTBOLA	ESKUBALOAIA
25	Apirilak 28	FUTBOLA	SASKIBALOAIA	FUTBOLA	ESKUBALOAIA
26	Maiatzak 5	FUTBOLA	SASKIBALOAIA	FUTBOLA	ESKUBALOAIA
27	Maiatzak 12	FUTBOLA	SASKIBALOAIA	FUTBOLA	ESKUBALOAIA
28	Maiatzak 19	FUTBOLA	SASKIBALOAIA	FUTBOLA	ESKUBALOAIA
29	Maiatzak 26	ESKOLA KIROLA FESTA		GURASOEN JARDUNALDIA	
30	Ekainak 2	GURASOEN JARDUNALDIA		E. De La Puente Oroigarria	

Etxepare, J. (2017)

Goiko taulan ikus dezakegun bezala, jardueren planteamendua duela 10 urtekoaren nahiko antzekoa den arren, aldaketa asko egin direla ikus daiteke. Ekintza nagusien blokea antzeko mantentzen den arren, Errugbiari garrantzia gehiago eman zaio (4 asteburutan errugbi ekintzak eginez) eta atletismoa eta igeriketaz gain herri kirolak eta pilota gehitu dituzte Benjamin kategorian eta raketa kirolak zein pilota Alebinetan.

Izena ematea Irailaren erdialdean (13tik 25era zehazki) formulario bat osatuz egiten da, hau ikastetxean entregatuz edo irungo udaletxearen web orriaren bidez bidaliz. Era berean, ikasle bakoitzari 123,45€-ko kuota bat kobratzen zaio, edo 30,60€koa hobaridun kuota izatekotan. Formulario horretan ikaslearen datuak eta fitxa medikoa (hau da, ea dibertsitate funtzionalik, alergiarik, botika berezirik.. duen).

Laburbilduz, Eskola Kirolak izandako bilakaeran berdintasunaren alde jo dela ikus daiteke, eskolek honetan alde egin dutelarik. Hala ere, kirol praktikei dagokienez, eskaintza nahiko gutxi aldatu da azken 10 urteotan, orokorrean tradizionalki gizonezkoentzat izan diren kirolak integratzen jarraituz eta natura jarduera edo erritimo/musika ekintzak integratzeko saiakerarik egin gabe.

METODOLOGIA

- **3.1. Ikerketaren helburuak.**

Jarraian aurkeztuko den ikerketaren helburua, Irungo Eskola Kirolaren egoeraren analisi bat egitea da, genero ikuspegian oinarrituta. Analisi honetan, arreta berezia ezarriko da bi aspektuetan: alde batetik, Eskola Kirolaren barnean neskek daukaten parte hartzea nolakoa den aztertze (bai inskripzio aldetik, baita jardueren barnean ere) eta beste alde batetik neska eta mutilen arteko inskripzio kopuruan dagoen desberdintasunaren arrazoiak bilatzea.

Izan ere, izen emandako mutilen kopurua neskenaren boskoitza da Irunen, eta ikerketaren helburuetako bat alde nabari honen kausak bilatzea izango da. Era berean, saiatuko naiz ezagutzen egunerokotasunean ea zein desberdintasun dauden mutil eta nesken artean eskola kirolaren barnean.

Beraz helburuak hauek dira:

- ❖ Irungo eskola kirolaren funtzionamenduaren analisi bat egitea
- ❖ Eskola Kirolaren barne errealitatea ezagutzea
- ❖ Neskek eskola kirolean partaidetza hain baxua izatearen kausa nagusia zein den ezagutzea
- ❖ Entrenatzaile/Koordinatzaileek euren taldeen barnean genero desberdintasunaren inguruan ikusten dituzten aspektuak ezagutzea
- ❖ Gurasoek orokorrean eskola kirolari buruz daukaten iritzia jakitea
- ❖ Proposamen alternatibo baterako ideiak jasotzea
- ❖ Nesken partaidetza sustatuko lukeen proposamen bat aurrera eramatea

- **3.2. Ikerketaren planteamendu metodologikoa:**

Ikerketa hau burutzeko, paradigma interpretatiboaren ikuspuntutik (helburutzat ezagutzea eta interpretatzea daukana) metodologia misto bat eramango dut aurrera, datuen iturri kualitatiboak zein kuantitatiboak kontuan hartuko ditudalako. Kasuen estudio bidezko metodoan oinarrituko naiz, jendearen banakako edo taldekako portaerak ezagutzeko eta ulertzeko estrategia gisa definitu daitekeena. Hau,

holistikoa, heuristikoa eta induktiboa da, eta errealitatearen ezagutza osoa bilatzen du, errealitate sozialak eta pertsonalak uztartuz. Beraz, kasuen estudio bidezko metodoa baliatuz Irungo Eskola Kirolaren errealitatea zein den ezagutzea izango da bilatuko dudana, gizabanako portaerak ezagutzen ahalegintzetik abiatuz.

Honetarako, elkarrizketa izango da erabiliko dudan teknika. Instrumentu gisa, galdera zerrenda erabiliko dut elkarrizketak aurrera eramateko, eta elkarrizketak egituratuak izango dira. Honetarako, bi elkarrizketa multzo planteatuko ditut:

- Lehenbiziko elkarrizketa multzoa eskola kiroleko entrenatzaile eta koordinatzaileekin aurrera eramango dut. Elkarrizketa hauetan, saiatuko naiz ezagutzen beraien ikuspegi barnetik ea talde mistoetako dinamika zer moduzkoa den (neskak normaltasun guztiz parte hartzen duten edo ez, diskriminazio egoerak ikusi ohi dituzten, jarduerak burutzerakoan ezberdintasunak dauden generoaren arabera..).
- Bigarren elkarrizketa multzoa, burutzeko konplexuagoa izango dena, Irungo 8-12 urte bitartean dituzten neska-mutilen gurasoei egingo zaie. Elkarrizketa hauen bidez, Eskola Kirolean izena ez ematearen arrazoiak ezagutzen saiatuko naiz, jakiteko hauek zeintzuk diren (ea eskola kirolaren egituraketa ez duten gustuko, Irunen beste kirol eskaintza erakargarriago batzuk dauden..). Honekin batera, gurasoek orokorrean (bai eskola kirolean izen emandako seme-alabak dituztenak baita izen eman gabe dituztenak ere), aurrerago planteatuko dudan proposamen alternatiborako jarraibideak izateko.

- **3.3. Parte-hartzaileak.**

Irungo Eskola Kirol programaren parte hartzaileak, Lehen Hezkuntzako 3. mailatik 6. mailara arteko neska mutilak dira, 8-12 urte bitartekoak alegia. Neska mutil hauek, talde mistoetan jokatzen dute, azken urteotan eskola ezberdinek berdintasun nahiaren alde eginiko eskaerak direla eta. Marko teorikoan azaldu bezala, hainbat kirol burutzen dituzte: Nagusiki Futbola, Eskubaloia, Saskibaloia eta Errugbia burutzen dute, eta ondoren jardunaldi aske batzuk bideratzen dizkiote Atletismo, Igeriketa, Pilota, Herri Kirol (benjaminetan) eta Raketa kirolei (alebinetan).

Parte hartzaile hauek gutxi gora behera 10 ikaslez osaturiko taldeetan jokatzen dute, normalean minutu banaketa berdina delarik eta postu guztietatik pasatuz. Hau ondo

bete dadin garrantzitsua da monitoreak bere papera modu egokian burutzea, eta bere helburua heztea izatea eta ez irabaztea. Esan beharra dago, honetan gurasoek ere pisu nabarmena daukatela.

Elkarrizketak aurrera eramateko baliatuko ditudan parte hartzaileei dagokienez, Irungo Eskola Kiroleko monitoreak eta eskola kirolean izena emandako seme-alabarik ez daukaten gurasoak izango dira. (Egin ondoren sakondu)

- **3.4. Informazioa biltzeko tresnak.**

Informazioa biltzeko, bi baliabide ezberdin erabili dira: Alde batetik, monitoreei informazioa biltzeko aurrez aurre eginiko elkarrizketa irekiak erabili dira. Monitore hauekin ezin geratzekotan edo, euren kabuz galderei erantzutea nahi izatekotan, Google Formularios bidez eginiko galde-tegi baten bidez jasoko da informazioa. Gurasoen kasuan, informazioa biltzeko erabili den baliabide bakarra aurrez aurre eginiko elkarrizketa izan da, erantzunak eskuz apuntatuz.

- **3.5. Ikerketa aurrera eramateko erabili den prozedura.**

Ikerketa aurrera eramateko erabilitako prozedurari dagokionez, lehenbizi monitoreen galdeketan zentratu nintzen. Kontuan izanda Irungo Eskola Kirolean lan egiten zuten monitore batzuk ezagutzen nituela (sei inguru), hauekin hitz egin nuen eta nire lana azaldu egin nien. Behin lana azalduta, planteatu egin nien ea zer iruditzen zitzaien hamar galderako elkarrizketa bat egitea, anonimoa zena eta Eskola Kirol barnean ikusten zuten genero dibertsitatea baloratzea helburutzat zeukana. Denek hasiera batetik esan zidaten inolako arazorik gabe erantzuteko prest zeudela, eta behin hori eginda egunak eta ordutegiak finkatzen joan nintzen, haiekin gelditu eta elkarrizketak aurrera eramateko.

Behin datak finkatuta, monitoreekin gelditzen eta elkarrizketak aurrera eramaten hasi nintzen. Euren erantzunak eskuz apuntatu nituen koaderno batean, eta gero hauek ordenagailura pasatu nituen. Pare bat kasutan, ordutegi zailtasunagatik, esan zidaten nahiago zutela galdeketari etxean erantzutea, eta orduan Google Formularios bidez erantzun zidaten. Elkarrizketa hauek aprobetxatu nituen galdetzeko ea Irungo Eskola Kiroleko beste monitorerik ezagutzen zuten, eta kasu horretan berarekin kontaktatzeko iturri bat emateko. Modu honetan, ezagutzen ez nituen beste lau monitorerekin kontaktatu ahal izan nuen, eta hauekin prozedura

antzekoa izan zen. Lanaren funtsa azaldu nien, eta gero planteatu zitzaien ea ondo iruditzen zitzaien galdetegi bati erantzutea. Denak ados zeudela erakutsi zuten, eta Google Formularios bidez erantzun zioten honi.

Gurasoei eginiko elkarrizketen kasuan, Eskola Kirolean euren seme-alabak izen emanda ez zituzten hiru ezagunei elkarrizketak egin nizkien hasiera batean. Ondoren, Irungo dantza akademia ezberdinetara bertaratu nintzen lehen hezkuntzako ikasleen dantza orduak amaitzear zeuden ordutegietan (hau aurretik galdetu nuen), eta kanpoan zeuden guraso batzuei egin nizkien elkarrizketak, euren erantzunak eskuz apuntatuz. Kasu honetan ere hasiera batean banan banan lanaren funtsa azaldu zitzaien eta gehiengoa galderei erantzuteko prest agertu zen.

IKERKETAREN EMAITZAK ETA INTERPRETAZIOA


- **4.1. Irun hiriko Eskola kirolaren azterketa kuantitatiboa: analisi deskriptiboa**

Irungo Eskola Kirolaren azken urteotako azterketa kuantitatibo bat aurrera eramateko, 2016, 2017 eta 2018 ikasturteetan Irungo ikastetxe guztietan Eskola Kirolean parte hartu zuten neska-mutilen datuak baliatuko ditut. Datu hauek, Javier Etxepare, gaur egun Irungo Kirol ekintzen arduraduna dena eta Irungo Udaletxeko Teknikari ohia izandakoak eskuraturikoak dira.

Eskola Kirola burutzen duten ikasle kopuruari dagokionez, Irunen aurten (hau da, 2017-2018 ikasturtean) guztira 2.236 ikaslek izena eman zuten ikastetxe ezberdinetako Hirugarren, Laugarren, Bosgarren eta Seigarren mailetan. Irunen kasuan, ikasteen %68ak ikastetxe publiko batean izena eman zuen, eta gainontzeko %32ak ikastetxe pribatuetan. Ikasle guzti horietatik 580 haurrek izena eman zuten Eskola Kirolean, hau da, %25,94 batek, lau ikasletatik bat bezala interpretatu dezakeguna. Hala ere, %25,26 horren barnean, genero nagusitasun argi bat ikus dezakegu: mutilena.

Izen emateen artean dagoen aldea zenbaterainokoa den ikusteko, 2017-2018 ikasturteko Eskola Kiroleko izen emateen grafikoa eta taula behatu ditzakegu:

7. Grafikoa – Irungo Eskola Kiroleko 2017-2018 ikasturteko izen emateak



Otegi, M. (2018)

8. Taula – Irungo Eskola Kiroleko 2017-2018 izen emate datuak eta ehunekoak


	2016				2017				2018			
	Benjaminak		Alebinak		Benjaminak		Alebinak		Benjaminak		Alebinak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Mutilak	199	77,70%	188	79,66%	225	76,27%	238	84,09%	271	82,62%	206	81,75%
Neskak	57	22,30%	48	20,34%	70	23,73%	45	15,91%	57	17,38%	46	18,50%
Guztira	256	100%	236	100%	295	100%	283	100%	328	100%	252	100%

Otegi, M. (2018)

Goian behatu ditzakegun Irungo Eskola Kiroleko 2017-2018 ikasturteko datuen grafiko eta taulak erreparatuz, ikus daiteke azken hiru urteotan tendentzia oso argi bat jarraitzen dela Irungo Eskola Kiroleko izen emateetan: Izen ematen duten bost haurretatik bakarra da neska. Orokorrean Gipuzkoako Eskola Kirolean genero araberako izen emateen banaketa %58 mutila eta %42 neska den arren (Gipuzkoako Foru aldundiaren datu ofizialen arabera), Irungo kasuan azken urteotan eman den banaketaren batz bestekoa %80 mutila eta %20 neska izan da. Datu hauek argi uzten dute Irunen kasuan egoera Gipuzkoako gainontzeko eremuetakoa baina okerragoa dela, genero banaketari dagokionez.

Jarraian, izen ematea kopurua aztertuko dugu baina bi adin kategoria nagusiak bereizita: Benjaminak eta Alebinak.

8. Grafikoa - Irungo Eskola Kiroleko 2017-2018 ikasturteko Benjaminen datuak




Otegi, M. (2018)

Benjaminen izen emate datuei erreparatzen badiegu, ikus daiteke izen emate kopuruak orokorrean goranzko joera bat hartu duela azken hiru urteotan. 2016tik 2018ra arte 72 izen emate gehiago daudela ikus dezakegu guztira, baikortzat jo dezakegun datua.

Hala ere, genero desberdintasunari erreparatzen badiogu, hau oso nabarmena da. Nahiz eta 2016tik 2017 ikasturtera nesketan 13 izen emate berri egon ziren, 2018 ikasturtera pasatzerakoan beste 13 izen emate galera egon zen, 2016ko izen emate

zifra bera utziz. Hiru urteetako izen emateen guztizkoa aintzat hartzen badugu, nesken izen ematea %20,10ekoa besterik ez da, mutilena %79,90ekoa den bitartean. Honek argi uzten du nahiz eta orokorrean tendentzia goraka doan, nesken partaidetzaren aldetik aldaketa askorik ez dela egon azken urteotan, parte hartzea nahiko eskasa izanez.

9. Grafikoa - Irungo Eskola Kiroleko 2017-2018 ikasturteko Alebinen datuak



Otegi, M. (2018)

Alebinnen izen emateei erreparatzen diegunean, Benjaminen datu nahiko antzekoak ikus ditzakegu. Hala ere, hauen kasuan tendentzia goranzkotzat jo dezakegun arren 2016tik 2018ra, aipatu behar da 2017an guztira 47 izen emate berri izan arren 2018an 31 izen emate gutxiago egon zirela.

Genero desberdintasunari erreparatzen badiogu, alebinnen kasuan benjaminen kasuan baina nabariagoa da neurri txiki batean. Izen emate kopuruen tendentzia nahiko orekatu mantendu da hiru urteetan, 45-48 tartean mantenduz, baina guztizkoarekin alderatuz hau ez da %20a izatera iristen, %19,60a besterik ez da. Beraz, hauen kasuan ere, ikus daiteke soilik bost izen emateetatik bakararra dela neska batek egina.

Alebinnen eta benjaminetan azken hiru urteotan emandako izen emateen guztizkoari erreparatzen badiogu, alde handia ikus daiteke. Benjaminen kasuan, guztira 879 haurrek eman zuten izena (%20-a neska izanik) azken hiru urteetan, eta alebinetan, ordea, 771 haurrek (%18-a neska izanik). Kontuan izanda haurrak Benjamin

kategoriatik Alebin kategoriara pasatzen direla, 108 izen emate galera gertatu izana datu kezkarria dela esan beharra dago. Gainera, kontuan izanda nesken partaidetza %20tik %18ra igarotzen dela, %2ko galera horrek suposatzen du benjaminetan parte hartu zuten 10 nesketatik 1ek ez duela alebinetan jarraitzen.

Laburbilduz, ondorioztatu daiteke Irunen Eskola Kirolaren guztizko partaidetzaren egoera guztiz kezkarria ez den arren (%25,94koa dena) nesken partaidetzaren aldetik datuak ez direla oso baikorrak. Izan ere, txiki-txikitatik kirol kultura barneratzeak eta kirolez hezteak daukan garrantzia jakinda, Eskola Kirolean izen emanda dauden 15 haurretatik (talde bat litzatekeena, gutxi gora behera) soilik 3 neska izatea gogoeta eragin beharko lukeen datu bat dela iruditzen zait.

- **4.2.Irun hiriko Eskola kirolaren azterketa kualitatiboa: elkarrizketak eskola kirolaren barnean**

Irungo Eskola Kirolaren funtzionamenduaren egitura kuantitatiboa ikusi ostean, ezinbestekoa da honen barneko funtzionamendu kualitatiboa nolakoa den behatzea. Hau egiteko, Eskola Kiroleko 10 monitoreri eginiko galdeketa bat baliatu da, egunerokotasunean genero ezberdintasunarekin loturiko hainbat aspektuen inguruan galdetuz. Monitore hauek kategoria guztietakoak izatea bilatu egin zen (hau da, bai Benjamin zein Alebin kategorietakoak eta horren barnean maila ezberdinetakoak), tendentzia orokor bat bilatzeko.

Galderekin hasi aurretik talde bakoitzean zegoen neska kopuruaren inguruan galdetu zitzairen, eta bertan ikusi egin zen taldeetan neska bat, bi edo hiru egoteko joera nahiko orekatua dagoela. Ez zen talderik aurkitu hiru neska baina gehiago daukanik.

Monitoreei neskek **integrazio mailaren** inguruan galdetu zitzaizenean, erantzun oso desberdinak jaso ziren. %50ak esan zuen neskek ondo integratuta zeudela, eta kasu batean, neskek taldeko liderrak zirela azpimarratu egin zen. Baina, gainontzeko %50ean ordea, nahiz eta kasu batzuetan neska guztiei ez eragin (talde batean bi nesketako bakarra ez zegoelako ondo integratua), monitoreen iritziz nesken integrazio maila taldean ez zen ona. Askotan mutilek neskei baloia pasatzeko eta neskek gehiago parte hartu ahal izateko normalean baina lan gehiago egin beharra aipatu zuten hiru monitorek, bestela mutilak askotan nesketan “ahaztu” egiten zirela esanez.



“Nahiko esfortzu egin behar dut zenbaitetan horrela izan dadin. Baina, orokorrean, esango nuke ez direla ongiegi integratzen, nire aldetik esfortzu asko jarri arren.”

Talde mistoen eta genero berdinekoen **dinamikaren** inguruan galdetu zitzaienean, erantzunak nahiko anitzak izan ziren. Orokorrean, aipatu egin zen bi hauen arteko dinamikak berdinak zirela, saioak diseinatzerakoan orokorrean gaitasunak hartzen direlako kontuan. Monitore batek, ezberdintasunak talde dinamikan egon beharrean talde mailan zeudela esan zuen, esanez soilik mutilez osaturiko taldeek orokorrean hobeto jokatzeko zutela eta partida gehiago irabazten zituztela (hau aspektu tekniko, taktiko eta fisikoei atxiki zien). Hala ere, hiru monitorek aspektu ezberdinak aipatu zituzten dinamiken inguruan: monitore batek esan zuen dinamikak batzuetan zailak izaten zirela mutilek neskekin parte hartu nahi ez zutelako, baina hau generoari atxikitu beharrean bere iritziz ona edo txarra izatearen kausa bat zen. Beste baten iritziz, dinamikan eragin handia zeukan talde mistoa izateak, detaile askotan (harrapaketa mutilak beti neskak harrapatzea joatea, neskei pase gutxiago ematea futbola bezalako kirolak..) ikusten zelarik mutilek neskekiko zeukaten aldekoa. Eta, azkeneko monitore batek, esaten zuen neskek taldearen dinamika moteldu egiten zutela, baina honen arrazoi nagusia ziurrenik neska horiek Eskola Kirolera gurusoengatik behartuak doazela zen, eta ez euren borondate propioz.

“Tamalez talde mistoak direnean ezberdintasunak nabaritzen dira. Jolas baten aurrean, harrapaketa adibidez, beti doazte lehenengo neskak harrapatzea. Txorakeria dirudien arren, oso nabaria da "bazterketa" hau”

Neska eta mutilen artean **ariketak egiterakoan ezberdintasunik** ikusten zuten galdetzerakoan (aspektu fisiko, taktiko edo teknikoetan adibidez) gehiengoak uste zuen, orokorrean, mutilek adin horietan gaitasun hobeak dituztela neskek baino. Honen kausa ezberdinak behatu zituzten, hala nola, mutilak oso txikitatik klubetan sartzeko joera handiagoa daukatela, mutilen helburua euren maila hobetzea dela eta neskena ondo pasatzea dela, adin horietan orokorrean mutilek indar gehiago izan ohi dutela.. Hala ere, denak ados agertu ziren aipaturiko aspektuak orokortasunak direla eta kirol motaren arabera ezberdintasun hauek gehiago edo gutxiago nabaritzen direla esaten. Izan ere, hiru monitorek aipatu zuten saskibaloian adibidez aldea txikiagoa dela futbolean baino (indarraren inplikazio handiagoa dagoelako).

“Batzuetan bai eta beste zenbaitetan ez. Egia da mutilak, nere kasuan behintzat, oso azkarrak direla. Gainera indar handiagoarekin erabiltzen dute baloia (futboleko baloiari ostikoa ematerako orduan adibidez). Baina honek ez du hobeagoak direla esan nahi. Beti kasuak kasu.”

Taldeko harremanen inguruan galdetu zitzaizenean, denek erantzun zuten orokorrean neska mutilek arteko erlazioak onak zirela. Taldeetan egon ohi den giroa ontzat definitu zuten, batzuetan apartekoa. Hala ere, monitore batek aipatu zuen mutilek neskak sirikatzeko joera handiagoa daukatela, eta neskek akatsen bat burutzekotan kritikatuagoak izan ohi direla mutilak baino.

“Lehen aipatu moduan ondo onartuak daude taldean, aurten besteetan baino gehiago egia esan, baina askotan ez diote jaramon handirik egiten neskeei. Nesken parte hartzea gainontzekoen berdina da baina egia da askotan paseak beti mutileei zuzenduta doazela nahiz eta neska ondoan bakarrik eta eskuragarri egon pasea jasotzeko. Baina oso onartuak daude.”

Ondorengo galderan, ea noizbait mutilek neskekiko **esklusio egoerarik** ikusi zuten galdetu zitzaizen. Bertan, soilik bi monitorek esan zuten inoiz ez zutela inolako eskusio egoerarik ikusi genero aldetik, ez partida ez entrenamenduetan. Gainontzeko monitoreek, ordea, bai onartu zuten noizbait eskusio egoeraren bat ikusi zutela, adibidez mutilen aldetik komentario ezberdinak entzunez, esaterako “a ella no le pases que va a perder el balon” edo “a ella no” bezalakoak besteak beste.

“Eskusio egoera larriena neskei baloia ez pasatzea edo “a ella no le pases que va a perder el balon” moduko komentarioak izan dira.”

Neskak kritikatzeko joerari dagokionez, galdetu zitzaizenean ea neskak kritikatuagoak ziren akatsak edo erabaki txarrak egiterakoan, orokorrean esan zen hau ez dela gertatzen. Joera nagusia hau da, eta talderen batean neskekiko malgutasun handia dagoela era aipatu zuten, euren akatsak gutxiago kritikatu. Hiru monitoreren iritziz, ordea, mutilek neskak kritikatzeko joera handiagoa daukate akatsak egiterakoan, generoari atxikituz buruturiko akatsa. Hiru monitore hauetako batek esan zuen ziurrenik modu inkonsizientean egiten duten zerbait dela, eta beste batek txikitatik haurrek barneraturiko balore eta jokabide sozialekin erlazionatzen du aspektu hau. Monitore gehienek iritziz, mutilek ez dute generoaren arabera kritikatu, gaitasunen arabera kritikatu dute, eta beraz kritikatuakoan haurren maila begiratzen dute.

“Ez dut uste. Eskola kiroleko arazoetako bat, haurrak oso konpetitiboak direla eta nahi duten bakarrik partidoak irabaztea da. Orduan ikusten badute pertsona batek (bai neska edo bai mutila) baloia galdu

dezakeela, nahiago dute beste bati pasa horrela gola sartzeko aukera gehiago dauzkate. Adibide bat jarriko dut. Nire taldean saskibaloia jolasten hoberena neska bat da eta mutil guztiek berarekin izan nahi dute. Zergatik? Partidoa irabazi nahi dutelako.”

Haurren jokabideei dagokienez, galdetu zitzaien ea haurren **jokabideetan progresio** bat ikusten zuten denboraldi hasieratik denboraldi amaierara arte. Bertan, bi monitorea esan zuten jokabideak hasieratik onak izan zirela, eta beraz zorionez ez dela progresiorik eman behar izan. Monitorean gehiengoak onartu egin zuen progresio onuragarri bat eman zela mutilek neskekiko zituzten jokabideetan denboraldia hasi zenetik. Honen kausa nagusia hezitzaileek nesken integrazioaren alde eginiko lana izan da, arau txikiak jarriz (monitore ezberdinek entrenamenduetan gol-a sartzeko taldekide guztiek baloia ukitu behar zutenaren neurria ezarri adibidez) mutilen joerak zuzentzea lortu dutelako. Monitore batek, ordea, esan zuen genero berdintasun aldetik ez dela progresiorik eman bere taldean.

“Bai. Hasiera batean, neskek baztertuagoak zeuden, mutilei gehiago kostatzen zitzaien neskei baloia pasatzea, liskar gehiago zituzten beraien artean.. Bainaazkenean hezitzailearen lana da taldea ondo eramatea eta taldean errespetua egotea. Orduan, hasierako egoera ikusiaz, taldeak aurrerapauso handia egin duela uste dut.”

Azkeneko galdera, **monitoreei** galdetu zitzaien ea beraien **harremanak** ezberdinak ziren neska edo mutilekiko. Bertan, erantzun zuten ezetz, denekin harreman berdina dituztela generoa kontuan izan gabe. Pare bat kasutan, neskekiko babeste handiagoa eskaintzen zutela onartu zuten monitorea, baina hau taldean integratzeko nahiarekin besterik ez zuten egiten. Orokorrean, erantzun zuten hurrekiko harremanak euren jokabide, portaera eta inplikazioaren arabera zela (parte hartzea, gogoak, materiala jasotzerakoan kolaborazioa..) eta ez generoaren arabera.

“Nire jokabidea bi generoekin berdina izaten saiatzen naiz. Baina egia da neskek hezitzailearen babesa behar dutela eta harreman estuagoa erakitzen da. Mutilak gehienetan bere kabuz ibiltzen dira. Baina harremana berdina da bai neska eta bai mutilekin.”

Eskola Kirolaren barnean genero desberdintasuna nolakoa den jakiteko galderekiko jasotako erantzunak behatuz, ondoriozta daiteke orokorrean taldeetako tendentzia nahiko ona dela (neskak ondo integratuta egoteko joera nagusitzen da, harremanak onak dira eta generoagatik kritikatzeko joera ez da gailentzen) talde gehienetan. Egia da gaur egun oraindik joera nahiko altua dagoela noizbait eskusio egoera bizitzeko

eta batzuetan integrazioa zaila dela (hasieran batez ere, behin monitoreek honetan lan eginda hau erraztu egiten da), baina aspektu oso baikortzat ikusten dut talde gehienetan mutilek neskekiko daukaten jokabideetan progresio onuragarri bat ikusi izana.

Hala ere, ezin daiteke ahaztu gaur egun oraindik ere badaudela talde batzuk non nesken integrazioa ez den guztiz baikorra eta neskek aldeztuagoak dauden. Honetan pisu handia dauka gizarteak neskei kirol munduan banaturiko rol-ak, txikiak hau barneratu eta euren bizitzan aplikatu egiten dutelako, nesken parte hartzea are gehiago zailduz. Hori dela eta, etorkizunari begira ezinbestekoa iruditzen zait alde batetik gizartean eta kirol munduan berdintasunaren alde are gehiago jotzea, eta monitoreei egoera hauei aurre egiteko gai izateko baliabide eta formakuntza egokiak ematea.

- **4.3. Kanpo faktoreen analisia: elkarrizketak eskola kirolek kanpo**

Eskola Kirolean parte hartze ezaren inguruko kausak zeintzuk ziren behatzeko (nesken aldetik, nagusiki), zuzenean Eskola Kirolean izena eman gabe zuten gurasoei galdeketak egin zitzaizkien. Bost galderaz osaturiko galdeketa sinplea zen, galdera zuzenekin. Honen bilaketa zaila izan zen, eta 8 gurasoren erantzunak bildu ahal izan ziren. Galdeketa gehien bat nesken parte hartze eza ikertzera joan arren, bi mutilen gurasoei ere galdeketa egin zitzaien, haien kausak eta Eskola Kiroleko inpresioak ere behatzeko.

Adinei dagokienez, adin guztietako seme alabak zituzten gurasoak elkarrizetatzea lortu zen, 8 urteetatik 12 urteetara. Elkarrizketaturiko 8 gurasoetatik 6k alaba zeukaten eta 2k semea.

Eskola Kirola ez egitearen kausa galdetzerakoan, erantzun nagusia denbora falta izan zen. Gurasoek preferentzia ematen diete orokorrean beste eskolaz kanpoko jarduera batzuei (musika, hizkuntzak..) Eskola Kirolari baino. Beste guraso batzuen kasuan, esan zuten Eskola Kirolean eskaintzen ez ziren kirol batzuk egitea nahiago zutela euren seme-alabek, dantza, judoa, igeriketa, karatea.. bezalakoak. Bi kasu egon ziren non kausa nagusizat haurrak Eskola Kirola egin nahi eza jotzen zuten, eskaintako kirolen erakargarritasun ezagatik edo beste preferentzia batzuk izateagatik.

“Nahiago duelako Eskola Kirolean eskaintzen ez diren beste ekintza batzuk egin, ahala nola igeriketa, judoa, karatea.. bestalde, kirola ez diren beste estraeskolarrei ere denbora ematen die, robotika eta musika bezala.”

Guraso bezala eskola kirolaren inguruan zeukaten iritzia buruz galdetzerakoan, soilik bi gurasok esan zuten Eskola Kirola hezigarria iruditzen zitzaie. Gehiengoaren iritziz, Eskola Kirol lehiara bideratua dago, eta askok onartzen du nahiago izango luketela hau hezigarria izango balitz. Hau lortzearen aldeko esfortzu bat egin beharra aipatzen dute guraso ezberdinek, nahiz eta onartzen duten aspektu zaila dela.

“Lehiara bideratuta dago, kirol asko bezala. Kirola hezigarri bihurtu behar da, nahiz eta gaur egun zaila izan.”

Orokorrean eskola kirolean egiten diren kirolei buruz ere galdetu zitzaie (Futbola, eskubaloia, saskibaloia, errugbia..). Bertan, sei gurasok esan zuten nahiz eta eskaintza bezala gaizki ez dagoela iruditu, uste dutela posiblea litzatekeela kirol gehiago sartzeta eta kirol ezagutza handiagoa eskaintzea haurrei. Euren hitzetan, “ulergarria da” baliabide eta azpiegitura aldetik kirol eskuragarrienak eta burutzeko errazenak horiek izatea, baina noizbehinka burutzen diren kirol horiek maiztasun handiagoz egingo balira eta kirol berri gehiago sartuko balituzte hobeto irudituko litzateke guraso gehienari. Beste bi gurasoek esan zuten eskaintza bezala egokia iruditzen zitzaie, batak kirola den guztia egokia dela ikusten duelako eta besteak barietate nahikoa dela uste duelako.

“Ulergarria da materialagatik edota lekuagatik kirol hauek egitea baina oso ezagunak ez diren beste kirolak lantzea ezinbestekoa da. Batez ere, eskola kirola kirol desberdinak bermatzeko ekintza bat delako.”

Azkenik, galdetu egin zitzaie ea Eskola Kirolean zeozer aldatuko zuten eta, hori izatekotan, zer izango litzatekeen aldatuko luketena. Bertan, sei gurasok, aurreko galderan eginiko aipamena azpimarratuz, kirol eskaintza zabalago bat sartuko lukete. Hain ezagunak ez diren kirolak sartzekoa garrantzitsua dela uste dute haurrek kirol ezagutza orokorrago bat izan dezaten eta etorkizunean aukeratzeko orduan denetatik probatu ostean erabakitzeko. Bertan, hiru gurasok aipamen berezia egiten dute gorputz adierazpeneko jardueretik, euren alabak oso gustukoak duten zerbait delako eta Eskola Kirolean hauek ez direlako eskaintzen. Bestalde, beste hainbat kirolekiko aipamena ere egin zuten hainbat gurasok, ahala nola igeriketa saio

gehiago egitea, surf-a, borroka kirolak (judo, karate..), natur jarduerak.. Beste alde batetik, guraso batek azpimarratu zuen Eskola Kirolaren izaera aldatzea gustatuko zitzaioela, eta izaera lehiakor horretatik izaera hezigarriago batera pasatzea.

“Ohiko kirolak landu behar dira, baina beste mila daude, eta horiek ere landu behar dira ohiko hauetatuz gain. Dantzari oso garrantzia gutxi ematen zaio adibidez, eta nire alabaren kasuan oso gustuko duen jarduera bat da.”

Gurasoei elkarrizketak egin ostean, ondorioztatu daiteke Eskola Kirolak arazo bat daukala kanpotik ematen duen inpresioarekiko. Elkarrizketaturiko gurasoen ehuneko oso altu batek uste du izaera lehiakorra daukala, eta Eskola Kirolak berez izaera hezigarri bat izateaz gain kanpora begira ere inpresio hori ematea bilatu beharko lukeela uste dut. Egia da haur askok Eskola Kirola ez burutzearen kausa nagusia dela gurasoek eskolaz kanpoko beste jarduera batzuei lehentasuna ematen dietela, eta Eskola Kirolak eskaintzen dituen kirolak burutu beharrean beste kirol jarduera batzuetan zentratzen direla (dantza eta igeriketa izan dira errepikatuenak).

Honen inguruan aipatu beharra dago eragin asko daukala Irunen kasuan bertan eskolaz kanpoko kirol zein beste jarduera eskaintza oso zabala dagoela (Javi Etxepare Irungo Kirol teknikariaren hitzetan), eta horrek azken finean haur askok Eskola Kirola burutu beharrean beste ekintzei garrantzia handiagoa ematea eragiten duela. Hala ere, guraso askoren iritziz, Eskola Kirolean ematen den kirol eskaintzan moldaketa bat ematea oso ondo legoke, bi aspektu nagusigatik: haurrek kirol ezagutza zabalago bat emateko eta hain lehiakorrak edo lehiarekin loturik dauden horrenbeste kirol praktikatu beharrean, hezigarriagoak izan daitezkeen beste batzuk praktikatzeko.

Irunen kasuan, bereziki, dantzak pisu handia daukala ikusi egin dut gurasoekin elkarrizketak egin ostean (elkarrizketaturiko gurasoen kasuan, alabak zituztenean, hauetatik seitik bostek dantza egiten zuten eskolaz kanpoko jarduera bezala), lehenago aipatu bezala akademia asko eta eskaintza zabala dagoelako. Hori dela eta, uste dut Eskola Kirolak bere baitan moldaketa bat burutuko balu eta gorputz adierazpeneko jarduerak integratuko balitu, sektore hau Eskola Kirolerantz erakartzea posiblea litzatekeela, eta honekin haur gehiago erakartzeaz gain bertan barneraturik dauden haurrek euren kirol ezagutzak areagotzea.

- **4.4. Irungo eskola kirolaren oztopoak: Ondorio bilketa**

Irungo Eskola Kirolaren barne eta kanpo analisi bat egin ostean, bertan dauden eta gehien bat neskei eragiten dieten oztopo nagusiak ondorengoak direla ondoriozta dezaket:

- **Eskaintza:** Eskaintza, aitzina baina zabalagoa izan arren, oraindik nahiko mugatua da. Guraso askok falta botatzen dute horren “ohikoak” ez diren kirolak praktikatzea, nahiz eta honen zailtasuna onartu. Bertan, azpimaratu egin behar da gorputz adierazpeneko jardueren falta, orokorrean neskei asko erakartzen dieten ekintza bat den arren Eskola Kirl barnean ez delako ematen.
- **Izaera lehiakorra:** Eskola Kirolak, nahiz eta berez hezigarria izan behar duen, kanpotik ikusita ekimen oso lehiakor baten inpresioa ematen du. Monitoreekin elkarrizketak egin ostean, oso argi dago ez dela euren eskuetan dagoen zerbait, enfasia egiten dutelako haurrei azpimarratzean garrantzitsuena parte hartzea dela eta ez irabaztea, baina praktikatzen diren kirolek inplizituki lehia daramate. Gainera, haurren izaera maiz lehiakorra da eta denek ez dute monitoreen mezua barneratzen, Eskola Kirolak kutsu hezigarri hori izatea zailduz.
- **Konpetentzia:** Irunen kasuan, eskolaz kanpoko jarduera aniztasun oso handia dago. Ez bakarrik kirolen aldetik, baita hizkuntza, marrazketa edo bestelako jardueren aldetik ere, eta gurasoen lehentasunen arabera Eskola Kirola bigarren plano batean gelditu ohi da (%74,04ak beste eskolaz kanpoko jardueri lehentasuna ematen die). Hala ere, aspektu hau oso loturik doa aurretik aipaturiko biekin. Hau da, Eskola Kirolaren eskaintza oso zabala iruditzen ez zaienez guraso gehienei eta gainera izaera lehiakorra nagusitzen denez, hauek Irunen dagoen eskolaz kanpoko jarduera aniztasuna aprobetxatuz euren seme alabek beste jarduera batzuk egitea nahiago dute.
- **Monitoreen formakuntza:** lehenago aipatu dudan bezala monitoreak orokorrean oso inplikatuak dauden arren Eskola Kirolari ikuspegi hezigarri bat ematearekin, orokorrean dagoen formakuntza falta oztopo bat izan daiteke

haurrei nola ailegatu jakiteko eta metodologia egokien inguruko aukeraketa bat egiteko. Berriro ere azpimarratu nahi dut hauek beraien lana modu oso profesional eta beti asmo onenekin egiten dutela, Eskola kirola hezigarria eta genero aldetik berdintasuneko joerarakoa izan dadin, baina euren eskura baliabide egokiak izango balituzte errazagoa izango litzateke beraientzat lana ondo egitea.

- **Genero desberdintasuna:** Monitoreekin elkarriketetan ikusi egin da orokorrean taldeetan neskak nahiko ondo ikusita daudela eta parte hartzea orekatua dagoela. Baina, oraindik kasuak daude (nahi baina gehiago zoritxarrez) non nesken inklusibitate falta dagoen eta nahiz eta ohikotasunez ez eman, eskusio egoerak ematen diren. Hauek, azken finean oztopo argi bat dira neskek eskola kirola burutzeko, bertan egiten diren kirolek gainera izaera lehiakorra daukatelako eta, ondorioz, kritikatuagoak izateko aukera handiagoa daukatelako. Hau, uste dut gizarte arazo bat dela, eta honi aurre egiteko txikitatik eskoletan lana egin beharko litzatekeela, berdintasunaren oinarriak irakatsiz. Noski, gurasoek honetan ere ikaragarriko erresponsabilitatea daukate, eta euren eskuetan egon behar da haurren heziketan berdintasun aspektuak barneratzea etorkizuneko eskusio edo integrazio faltazko egoerak ekiditeko.
- **Gurasoak:** Zoritxarrez, gaur egun ere badaude guraso asko euren haurrak Eskola Kirolean izena eman ostean, euren gandik irabaztea espero dutenak. Egia da joera hau ez dela orokorra, baina horrelako kasuak behatu ahal izan ditut Eskola Kiroleko hainbat jardunaldietara gerturatuz. Honek, azken finean, haurrei presio gehiago eragiteaz gain Eskola Kirolarekiko duten ulertzeko modu desegoki bat eragiten diete. Honek, ez ditu soilik euren haurrak kaltetzen, euren haurraren taldean dauden gainontzeko neska mutilak kaltetuta ateratzeko arriskua ere bertan dago, gutxi batzuek gainontzekoengan egin dezaketen presio eta kritikengatik. Beraz, argi dago guraso hauei asko irakatsi behar zaiela Eskola Kirolaren eta hau ulertzeko moduaren errealitatearekiko, honek Eskola Kirola indartuko duelarik.

ESKOLA KIROLAREN PROPOSAMEN ALTERNATIBOA

Irungo Eskola Kirolean, nahiz eta helburu nagusitzat kirol aniztasuna eta ondo pasatzea eduki, inplizituki bere baitan lehia gailentzen da, jardueren egituraketa eta antolatzeko moduagatik. Hala ere, Eskola Kirolak ez du zertan lehiakorra izan, askoz ere onuragarriagoa izango litzateke haurrentzat bere oinarri nagusia kooperazioa balitz. Eskola Kirolak berez daukan potentzial hezigarria kontuan izanda (Aguado, R. M., Garzarán, A. P., & Fernández, J. M. G., 2013) Irungo Eskola Kirolak bere egituraketan aldaketak ezarriko balitu (eskaintzaren aldetik baita partidak antolatzeko jarraibideen aldetik ere), aspektu lehiakor hau alde batera uztea posiblea izango litzateke, elementu hezigarri eta kooperatiboetan arreta zentratzea ahalbidetuz.

Aipaturikoa posible dela oso argi uzten du Segovian 2009tik indarrean dagoen PIDEMSG (Segoviako Eskola Kirol Programa Integrala) programak. Programa honen helburua, eskolako haurren formazioa eta kirol parte hartzea sustatzea da, bizi ohitura osasuntsuak, kirol kultura.. garatzearekin batera. Hasiera batetik Eskola Kirola lehiatik aldentzeko beharra ikusi zuten hainbat ikerketa eginda, eta ikusi zen beharrezkoa zela Eskola Kirolean Kirol Federatuan burutzen ziren jarduerak ez erreproduzitzea. Honetarako, hainbat jarraibide ezarri ziren, besteak beste monitoreen formakuntza hobetzea. Izan ere, arreta berezia ezartzen zaie araukiko errespetu, joko garbi, integrazio, parte hartze misto, koedukazio, izaera ez lehiakor eta bizikidetzaren interrelazio baikorra bezalako baloreei, eta hauek haurrengana ondo helarazteko monitoreek formazio bat izatea ezinbestekotzat jotzen dute. Honetarako, hasiera batetik monitoreek ikastaro bat bete behar dute (metodologia ezberdinak ezagutu eta nola aplikatu ikasteko), eta astero seminario bilerak egiten dituzte egunerokotasunean agertzen diren zalantzak argitzeko.

Beraz, PIDEMSGak bilatzen duena kirol ohituren egonkortzea, kirol ugari eta ezberdinen barne logikaren ulertzea eta inklusioarekin, koedukazioarekin, joko garbiarekin eta araukiko errespetuarekin erlazonaturiko baloreak garatzea da, hauek haurrei helarazteko formatuta eta prestatuta dauden monitoreen bitartez.

Programaren egituraketari dagokionez, bi atal nagusi ditu: entrenamenduak eta topaketak. Entrenamenduei dagokienez, hauek izaera erabat hezigarria daukate, “ikaste sesioak” bezala definitzen dira. Bertan, bilatzen dena ikasleak euren ikaste propioetan inplikatzeko da, metodologia ulerkor eta parte hartzaileak baliatuz. Entrenamenduen elementu osagarri gisa, topaketak dauzkagu. Topaketak, Irungo Eskola Kirolean larunbatetan egiten diren partidak bezala identifika ditzakegu, baina egituraketa erabat ezberdina daukate. Hauek, bi astean behin egiten dira, eta bertan ikastetxe guztietako neska eta mutilak aste horretan zehar praktikatu duten kirolean jarduten dute. Hauek hezigarriak izatea da bilatzen dena, parte hartzeko integrazioa bezalako baloreak garatzea bilatuz, ondorengo egituraketari esker: bertan, denok denon aurkako partidak jokatzen dira, iraupen laburrekoak, non etengabe jokalarien artean aldaketak ematen diren eta filosofiatzat parte hartze eta integrazio handiena bilatzen den. Gainera, ez dago emaitza ofizial ezta sailkapenik ere, ikuspegi parte hartzailea azpimarratzeko, eta honetarako jokoen barne logika aldatzen ez duten hainbat moldaketa egin ohi dira arauetan. Esandako moduan, enfasia jokatzen irakastean, elkarbizitzen ikastean eta kirola praktikatzuz ondo pasatzean jartzen da, honetarako, ikastetxe ezberdinetako haurrak elkartu eta talde berriak sortzea edo taldeak orekatzea ahalbidetuz.

Topaketei dagokienez, esandako moduan euren barnean partida asko jokatzen dira, hamar minutu inguruko iraupena daukatenak, eta bertan bilatzen da haur guztiek parte hartze denbora berdina izan dezatela, kirol horrekiko duten maila edo ezagutza kontuan izan gabe. Era berean, topaketetan partidaren arteko errotazio sistema bat ezartzen da, denek denon aurka jokatzeko eta guztira 6-7 partida jokatzeko aukera izan dezaten. Epaileei dagokienez, hauen funtzioa nagusiki didaktikoa da, ez direlako faltak seinalatzera mugatzen, inplikaturik dagoen haurrari apurtutako legearen inguruan azalpenak ematen dizkietelako.

PIDEMSG programan, kirol aniztasunean oinarriturik dagoena, praktikatzen diren kirolak ondorengoak dira: Minisaskibaloia, minifutbolsala, minieskubaloia, minihockeya, atletismoaren hastapenak eta eskola errugbia. Hauek, esandako moduan metodologia ulerkor baten bitartez irakasten dira, bi helburu nagusi dauzkana: jokoaren egitura taktikoa ulertzea eta besteak ulertzea, gure taldekideengan pentsatuz, euren egoerez konturatuz eta eurekin enpatizatuz. Orokorrean ikus daiteke Irungo eskola kirolean bezala kirol ezberdinak praktikatzen

direla (nahiko kirol antzekoak egia esan), baina ezberdintasun nagusia topaketen bidez hauei ematen zaien kutsu hezigarrian dago, non emaitzaren garrantzia minimoa den.

Hainbat autoreek PIDEMSG programaren inguruko analisi bat egin dute azken urteotan, eta ateratako ondorio nagusiak ondorengoak izan dira:

- Programak ez du soilik kondizio fisikoaren hobekuntza bilatzen, etorkizun batean kirol praktika burutzen jarraitzeko motibazio bat ere eragiten du (Gea, J. M., 2010). Prozesuaren parte aktibo sentitzen dira haurrak, euren ideiak garrantzitsuak direla ikusten dute, eta honek euren parte hartzea eta jokabide baikorrak sustatzen ditu (Ponce, A., 2012). Gainera, ikasleen autonomian eta kirolarekiko erresposabilitatean progresioa ikus daiteke (Ponce, A., 2013).
- Ezinbestekoa da Gorputz Heziketako irakasleek Eskola Kirolean duten inplikazioa hobetzea eta monitoreen formakuntzan arreta berezia ezartzea, euren direlako Eskola Kirola hezigarria izan dadin arduradunak (Pérez Brunicardi, D., 2011 eta Gonzalo, L. A., 2012). Izan ere, formakuntza gabezia honen ondorioz metodologia ez hezigarri edo ez parte hartzaileen erabilerara jo dezakete monitoreek (Gonzalez, M., 2012).
- Eskola Kirol programa egituraketa honek integrazioa eta komunikazio interkulturala errazten ditu, duen izaera pedagogiko eta balore hezigarrien garapenagatik (Carter, B., 2012). Topaketetan sortzen den giro onak partaideen arteko erlazio onen sustatzea eragiten du. Denek ondo ikusten dute parte hartze filosofia (Ponce, A., 2013), eta eboluzio baikorra ematen da adiskidantza, berdintasuna, kooperazioa eta arauetiko errespetuan, topaketetan maiztasun handiz ikus daitezkeelarik (Medina, J., 2013)
- Nahiz eta PIDEMSG programak parte hartze maximoa bilatzen duen, gizartean dauden ideal tradizionalak emakumezkoek kirol jardueretan parte hartzea mugatu egiten dute (Escudero, J. A., 2012).

Beraz, argi dago, hainbat autoreek ondorioztatu duten moduan PIDEMSG bezalako eskola kirol kooperatibo eredu batek ikasleengan onura ikaragarriak dakartzala kirol heziketarekiko. Autore askok azpimarratzen dute programa honek ondo funtzionatu dezan ezinbestekoa dela monitoreen rol-a, metodologia egokiak ondo ezagutu eta hauek praktikan jartzeko formakuntza minimo bat behar dutelako. Nire iritziz ere,

eskola kirol eredu optimoa iruditzen zait, garrantzia argi eta garbi dagoelako bideratuta ikasleen formakuntzara eta lehia bigarren plano batean geratzen delako.

IRUNGO ESKOLA KIROL EREDU OPTIMOA: PIDEMSG PROGRAMA + JARDUERA GEHIGARRIAK

Lehenik eta behin, esan beharra daukat programa honek Irunen izango lukeen erabilgarritasunari dagokionez, nire iritziz erabat erabilgarria dela uste dudala. Egia da honek lan gehiago eskatzen duela (bai monitoreentzat baita entitate antolatzaileentzat ere, formakuntzagaratik nagusiki), baina zailena lehen oinarriak ezartzea eta hasiera ematea dela uste dut. Behin lehen urratsak ematen hasita, inolako arazorik gabe aurrera eramango litzatekeen eredu bat da nire iritziz.

Beraz, PIDEMSG programa eta monitore zein gurasoen elkarrizketetatik ateratako ondorioak oinarritzat izanda, Irungo Eskola Kirol eredu optimoa sortzeko ondorengo aldaketak aurrera eramango nituzke:

- **Monitoreen formakuntzan enfasia egin:** Irunen, nahiz eta monitore batzuk Eskola Kirol titulua izan, monitore asko dago inolako formakuntza espezifikorik jaso gabe eskola kirol monitore gisa jarduten dena. Gainera, Eskola Kirol tituluari beharrezkoa litzateke metodologia ulerkor eta parte hartzaileetan enfasia egitea, eta erakusten diren edukiak formakuntza aspektuei gehiago bideratzea (nik duela 4 urte atera nuen, eta bertan irakasten diren edukiak eguneratzeko beharra ikusten dut PIDEMSG programara hurbildu nahi izatekotan).
- **Asteburutako partidak topaketengatik ordezkatu:** Partida hauetan monitoreek erabat argi utzi arren garrantzitsuena parte hartzea dela eta emaitza erabat sekundarioa dela, haur askok inplizituki lehiarekin erlazionatzen dituzte partida hauek, eta nahiz eta kanpo estimuluek kontrakoa esan bere baitan emaitzari garrantzia ematen diote. Topaketen bidez, partida asko jokatzen direnez, iraupen gutxikoak, eta oso dinamikoak direnak, ikasleak arreta emaitzatik at beste elementuetan fokalizatzea lor dezakegu.
- **Kirol eskaintza are anitzagoa egin:** Haur askok eskola kirola ez praktikatzearen arrazoia, Eskola Kirolean nagusiki tradizionalki gizonenak

eta lehiakorrek izan diren jarduerak burutzen direla da. Hori dela eta, uste dut PIDEMSGan egiten den bezala “mini” kirol ereduak aplikatuz, hauek askoz dinamikoagoak, sinpleagoak eta errazagoak bilakatzen direla, kirol tradizionaletik dagoen erretxazo hori gainditu dezaketelarik. Gainera, kirol eskaintza are zabalagoa egitea ondo legokeela uste dut, minihockeya, minivoleya.. bezalako jarduerak integratuz. Gainera, hauek burutzeko ez da azpiegitura berezirik behar, bata egiteko materiala izanda edozein zelaitan joka dezakegulako eta bestea egiteko edozein zintarekin sare bat sor dezakegulako.

- **Jarduera berriak integratu:** Esandako moduan, kirol berriak integratzea oso garrantzitsua ikusten dut, eta honekin batera uste dut ikasleen kirol ohituren txertatzean eragin dezaketen beste jarduera berri batzuk ere integra daitezkeela, hala nola:
 - **Mendi irteerak eta natur jolasak:** Uste dut oso interesgarria izan daitekeela maiztasun batekin talde ezberdinak elkartu eta mendi irteerak egitea. Hauetan, adiskidetasuna, kooperazioa eta errespetua bezalako baloreak garatzen direla autore askok ikusi dute (Fullonet, F., 1989), eta irteera hauek joko, jolas edo kirol ezberdinen praktikarekin erlazionatu ditzakegu, Irunen eta inguruko zonaldeetan dauden natur esparru anitzak aprobetxatuz.
 - **Gorputz Adierazpeneko jarduerak:** Jarduera hauek beste kirol jarduera guztiek dituzten onura berak izateaz gain, ikasleei esparru hau ezagutzeko aukera eskaintzea oso garrantzitsua dela uste dut. Gizarteko idealen ondorioz, jarduera hauek oso lotuta joan ohi dira emakumezko generoarekin, eta haur guztiek hauek praktikatzuz lor dezakegu jarduera hauekiko duten aurreiritzia gainditzea eta normalizatzea. Gainera haur batzuk eskola kirolean parte hartze ezaren arrazoietakoa bat hau da, eta Irunen gorputz adierazpenarekiko dagoen eskaintza zabala kontuan izanda, haur askori mundu hau ezagutzeko eta etorkizun batean nahi izatekotan bertan barneratzeko aukera eskaintzeko bide bat izan daiteke.
 - **Joko-jolasak:** Joko jolasen bidez, eta hauek ikastetxe ezberdinen arteko hurrekin praktikatzuz, haurren arteko erlazioak hobetzea ahalbidetu daiteke. Izan ere, hauen bidezume taldeen elkarren arteko

ezagutza eta inklusioa sustatzen da, garapen pertzeptibo motorearekin batera (Zulaika, I., 2015). Beraz, hauen bidez modu sinplean lehia alde batera uztea ahalbidetu dezaketen egoera ludiko eta motorrak sor ditzakegu.

Beraz, Irungo Eskola Kirolari kutsu hezigarri bat emateko irizpideak zeintzuk diren ikusita, eta kontuan izanda Irunen azpiegitura egoki eta ugariak daudela aipaturiko jarduerak aurrera eramateko, uste dut Irungo Eskola Kirolari kutsu hezigarriago bat ematea helburu eskuragarri bat dela. Gainera, kontuan izan behar da lehia alde batera uzteak ikasleen parte hartzean gorakada bat eragin dezakeela. Egia da horrek lan asko dakarrela atzetik eta gauza asko aldatu beharko liratekeela, baina etorkizunari begira aurrerapauso oso handia eragingo lukeen ekintza bat dela uste dut, Eskola Kirol eredugarri eta hezigarri baten sorrera, alegia.

ONDORIOAK

Irungo Eskola Kirolak genero dibertsitate aldetik daukan izaeraren analisi kualitatibo eta kuantitatibo bat egiteak, bere funtzionamendua sakontasunean ulertzea ahalbidetu dit. Elkarrizketa, ikerketa zein behaketa ezberdinen bitartez, Irungo Eskola Kirolaren errealitatea zein den ezagutzeko aukera izan dut, eta nire ikerketaren ondorio nagusiak ateratzea.

Atera dezakedan ondorio nagusia da hobekuntza lerro asko daudela Irungo Eskola Kirolaren barnean. Kutsu lehiakorregia dauka, haur askoren izen ematea oztopatu egiten duena, eta bere barne funtzionamenduan gatazka ezberdinen agerpena errazten duena. Hau, gainera, nesken izen ematea hain baxua izatearen kausa nagusizat jo dezaket, orokorrean hain lehiakorrek diren jarduerak hain gustuko ez dituztelako.

Eskola Kirola egituratzeko forma ezberdinak daude (Proposamen Alternatiboaren atalean argi utzi dudan moduan), eta bertan aipaturiko gidalerroak oinarritzat izanda uste dut Irungo Eskola Kirolean hoberako aldaketa bat ematea posible dela. Egia da erosoena eta errazena momentura arteko eredu mantentzea dela, baina erosotasunean baino Irungo lehen hezkuntzako neska mutilen kirol heziketan pentsatzea garrantzitsuagoa dela uste dut.

Beraz, kontuan izanda lanaren erabilgarritasuna nahiko egokia izan dela ahalbidetu duelako Eskola Kirolaren barne errealitatea ezagutzen, nire errekomendazio nagusiak ondorengo hiruak dira: Eskola Kirolaren egituraketan birmoldaketa bat egitea (PIDEMSG ereduan oinarrituz), kirol aniztasun handiago bat barneratzea eta monitoreen formakuntzan enfasi handiago bat egitea, haien eskuetan dagoelako haurrei eredu hezigarriak helaraztea.

Etorkizun baterako ikerketa lerroei dagokienez, ondo legoke guraso lagin zabalago bat hartu eta Eskola Kirolari buruzko galdera zehatzagoak egitea, hobelero zehatzak ezartzeko. Gainera, lagin horretan euren seme alabak Eskola Kirolean izena emanda dituztenak ere barneratzea interesgarria izan daitekeela uste dut. Era berean, lehen hezkuntza bukatu berri duten ikasleei (Eskola Kirolean parte hartu dutenei zein parte hartu ez dutenei) ere Eskola Kirolaren inguruan izandako bizipen, iritziaren

eboluzioan, parte hartze ezaren zergatian, uztearen zergatian, kritikak... galdetzea
interesgarria izan daitekeela uste dut.

ERREFERENTZIAK

- Aguado, R. M., Garzarán, A. P., & Fernández, J. M. G. (2013). El PIDEMSG. Una propuesta alternativa al modelo de deporte escolar tradicional. *Athlos: Revista internacional de ciencias sociales de la actividad física, el juego y el deporte*, (4), 29-56.
- Alvariñas Villaverde, M., Fernandez Villarino, M., & López Villar, C. (2009). Actividad física y percepciones sobre deporte y género. *Revista de investigación en educación*, 6, 113-122.
- Alvariñas, M. (2004). Atribución causal en educación física y estilo de vida saludable en el alumnado de Educación Secundaria Obligatoria del Ayuntamiento de Oleiros. *Tesis Doctoral no publicada. Universidad de A Coruña*.
- Amado, D., Sánchez-Miguel, P. A., Leo, F. M., Sánchez-Oliva, D., & García-Calvo, T. (2014). Diferencias de género en la motivación y percepción de utilidad del deporte escolar. *Revista Internacional de Medicina y Ciencias de la Actividad Física y del Deporte/International Journal of Medicine and Science of Physical Activity and Sport*, 14(56).
- Arufe-Giráldez, V., Barcala-Furelos, R., & Mateos-Padorno, C. (2017). Programas de deporte escolar en España e implicación de los agentes educativos. *Revista Internacional de Medicina y Ciencias de la Actividad Física y del Deporte/International Journal of Medicine and Science of Physical Activity and Sport*, 17(67).
- Bakker, F.C. *et al.*, (1993). *Psicología del deporte*, Madrid, Morata.
- Buceta, J.M. (1998), *Psicología del entrenamiento deportivo*, Madrid, Dykinson.
- Escudero Valenzuela, J. A. (2012). La participación de las chicas en el programa integral de deporte escolar de Segovia. Valladolid, Universidad de Valladolid.
- Fraile, A., & de Diego, R. (2006). Motivaciones de los escolares europeos para la práctica del deporte escolar. Un estudio realizado en España, Italia, Francia y Portugal. *Revista internacional de sociología*, 64(44), 85-109.

- Funollet, F. (1989). Las actividades en la naturaleza como marco de una educación física activa y eficaz. *Apunts Educació Física i Esportes*, (16-17), 81-85.
- García, J. N., & de Educación Física, M. (2009). Mujer y Deporte. Prejuicios y logros. *Revista de Transmisión del Conocimiento Educativo y de la Salud*, 1(1), 32-50.
- Grandmontaigne, A. G., & Isasti, L. M. Z. (2000). La participación en el deporte escolar y el autoconcepto en escolares de 10 a 11 años de la provincia de Guipúzcoa. *Apunts. Educación física y deportes*, 1(59), 6-10.
- Iruretagoyena, I. (2010). Solución estructural del Deporte Escolar en Gipuzkoa. *Kirolarte*.
- Monjas Aguado, R., Ponce Garzarán, A., & Gea Fernández, J. M. (2015). La transmisión de valores a través del deporte. Deporte escolar y deporte federado: relaciones, puentes y posibles trasferencias. *Retos. Nuevas Tendencias En Educación Física, Deporte Y Recreación*, (28).
- Llopis Goig, R. (2016). *Participación deportiva en Europa: políticas, culturas y prácticas*. Editorial UOC.
- Ortuzar, I. (2004). El deporte escolar y el profesorado de educación física, Tesis doctoral, UPV, Bilbao.
- Ricardo Contreras, O., Gregorio Fernández, J., García, L. M., Palou, P., & Ponseti, J. (2010). El autoconcepto físico y su relación con la práctica deportiva en estudiantes adolescentes. *Revista de Psicología del Deporte*, 19(1).
- Zulaika Artolozaga, I. (2015). Joko-jolasen bidez: Inklusioaren eta gaitasun pertzeptibo motoreen sustapena. *Getxoko DBHrako proposamena*.

ERANSKINAK

MONITOREEI EGINIKO GALDEKETA:

- Zein ikastetxetan entrenatzen duzu eta zein mailatan?

- Ba al daukazu neskarik zure taldean? Zenbat dira?

- Ondo integratuta al daude taldean?

- Nolakoak dira talde dinamikak talde mistoetan? Ba al dago desberdintasunik genero berdineko taldeak direnean edo mistoak direnean?

- Ariketak burutzerakoan, ezberdintasunik ikusten al duzu (teknika, indarra, taktika lantzean) neska eta mutilen artean?

- Zer moduzko harremanak daude taldean neskekiko? Hau da, era bat onartuak dira, parte hartze handia dute.. edo baztertuagoak daude, gutxiago parte hartzen dute jokoan, ez dirudi dibertitzen direnik..?

- Ikusi ahal duzu inolako eskusio egoerarik entrenamendu edo partidetan, mutilen aldetik neskekiko?

- Kritikatuagoak al dira neskek, akatsak egiterakoan edo erabaki zuzenak ez hartzerakoan, neskek izate hutsagatik?

- Zein inpresio jasotzen duzu kanpotik: Haurrek kontuan hartzen dute ea taldekidea neska edo mutila den (kritikatzerakoan, komentarioak egiterakoan, joko dinamikiaren barnean..)

- Denboraldi hasieratik orain arte, sumatu ahal duzu aldaketarik mutilek neskekiko daukaten jokabideetan?

- Entrenatzailearen harremanak ezberdinak al dira neska edo mutilekin? Hau da, preferentziarik daukazu, erosoago sentitzen zara genero zehatz batekin lan egitean..

GURASOEI EGINIKO GALDEKETA:

- Zenbat urte ditu zure alabak?
- Noizbait eskola kirola egin ahal du? Zer dela eta utzi zion egiteari?
- Zein da gaur egun eskola kirola ez egitearen arrazoi nagusia?
- Zein iritzi daukazu zuk, guraso bezala, eskola kirolarekiko? Uste duzu hezigarria dela edo lehiara bideratuta dagoela?
- Zer nolako inpresioa daukazu eskola kirolean burutzen diren kirolekiko? Futbola, eskubaloia, saskibaloia, errugbia..
- Aukera izango bazenu eskola kirolean zerbait aldatzeko, zer aldatuko zenuke?

IRUNGO ESKOLA KIROL ESKAINTZA FOLLETOA

2017-2018

Apuntatuko nauzue?
¿Me apuntáis?

Mesedez!
¡Por favor!

Nik ere nahi dut!
¡Yo también!

ESKOLA KIROLA

Hezitzen duen Kirola

DEPORTE ESCOLAR

El Deporte que Educa

Zergatik parte hartu?

¿Por qué es bueno que vuestro hijo/a participe?

1 Kirol ezberdinek egiteko aukera duzueko, uneorren adin eta ezaugarrietara egokituakak.

Porque tienen la oportunidad de practicar diferentes modalidades deportivas adecuadas a su edad y características.

2 Ona posatuz gainera, adiskidetasun eta bikidetasun baloreak ikasiko dituzueko.

Porque, además de pasarlo bien, aprenderá los valores de la amistad y la convivencia con los demás.

3 Hezitzaile irabatu eta profesionalen zuzaritzapean arituko denak.

Porque las actividades serán dirigidas en todo momento por educadores formados y profesionales.

4 Kirolean ere euskaraz arituko denak.

Porque practicarás deporte en euskara.

PROGRAMAREN EZAUGARRIAK

Norentzat da? Lehen Hezikuntzako 3., 4., 5. eta 6. mailako haurrentzat.

Egutegia: 2017ko urriaren 31tik 2018ko maiatzaren 31ra.

Entrenamendua: aridubetako 2 saio eskola orduak bakoitu eta gero.

Prezioa: 123,45€ (urriaren 31tik 2017ko maiatzaren 31ra) eta 61,72€ (2018ko maiatzaren 31tik 2019ko maiatzaren 31ra).

Ordainketa: kizkoraren diru-ostara izanemate orrian emandako kartzu karterean egingo da.

Kontzeptua: Urriaren izen-abuzuen jarrita diru.

IZENEMATEA

Epia: 2017ko irailaren 28tik 25era.

Nota: izen ematearen hasieran ematen da.

1.- ikastetxearen bertan, dagokien mailaguztatu-etaz bidez.

2.- www.irun.es web orrian (eta SACko termivoletan) Irun Txartelaren bidez.

3.- Bi kasuetan, ordainketaren frogagarria entregatu beharko da.

OSATUTAKO TALDEAK

Nota: irailaren 25an Irungo ikastetxeetan eta www.irun.es web orrian kontsultatu ahal izango dira.

CARACTERÍSTICAS DEL PROGRAMA

¿A quién va dirigida? a niños/as que cursen 3º, 4º, 5º y 6º de Educación Primaria.

Calendario: del 3 de octubre de 2017 al 31 de mayo de 2018.

Entrenamientos: 2 entrenamientos semanales de una hora uno vez finalizado el horario escolar.

Precio: 123,45€ (octubre). El pago se puede hacer en dos plazos, uno de 61,72€ en septiembre y otro de 61,72€ en enero. El niño/a cuyo familia opte por la participación de la R2 30,60€ (15,30€ en septiembre y 15,30€ en enero).

Forma de pago: el ingreso de la cuota se realizará en la cuenta corriente que aparece en la hoja de inscripción. **Concepto:** Nombre y apellidos del niño/a.

INSCRIPCIÓN

Plazo: del 23 al 25 de septiembre de 2017.

Cómo: la inscripción puede hacerse de cualquiera de los siguientes formas:

- 1.- En el propio centro escolar, cumplimentando la correspondiente ficha de inscripción.
- 2.- En www.irun.es y terminada en el SAC con la Irun Txartela.
- 3.- En ambos casos habrá que entregar el comprobante de pago.

ASIGNACIÓN DE GRUPOS

Cuándo: se podrá consultar el 28 de septiembre en los centros escolares y en www.irun.es











IRUNGO ESKOLETAKO IZEN EMATE DATUAK

9. Taula - Irungo 2017-2018 ikasturteko ikastoletako izen emate datuak

CEIP DUNBOA	D	42	34	41	45	47	41	42	44	41	377	377
CEIP EGUZKITZA	D	46	46	46	50	49	48	51	50	50	436	436
CEIP ELATZETA	D	43	46	46	44	46	41	50	47	47	410	410
CEIP LEKAENEA	D	19	15	27	24	31	22	15	24	22	199	199
CEIP TOKI ALAI	D	67	66	70	73	72	74	75	65	72	634	634
CEIP TXINGUDI IKASTOLA	D	78	70	92	93	114	115	124	115	117	918	918
TOTAL CURSO		325	304	353	355	397	378	391	380	373		
TOTAL CICLO			982			752		769		753		3.256

CENTROS PRIVADOS	MODELO	ED.INF. 3	ED.INF.4	ED.INF.5	ED PRIM 1	ED.PRIM 2	ED. PRIM 3	ED. PRIM. 4	ED.PRIM. 5	ED.PRIM 6	MODELO	TOTAL
	B									50	B	50
CPEIPS IRUNGO LA SALLE	D	50	50	50	50	53	50	51	50		D	404
CPEIPS EL PILAR	D	50	50	50	51	50	53	50	57	50	D	461
	B									46	B	46
CPEIPS SAN VICENTE PAUL	D	47	48	50	51	50	52	50	52		D	400
CPEIPS ERAIN	A	21	11	26	21	25	21	30	25	27	A	207
TOTAL CURSO		168	159	176	173	178	176	181	184	173		
TOTAL CICLO			503			351		357		357		1.568

TOTAL GENERAL		493	463	529	528	575	554	572	564	546		4.824
---------------	--	-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----	--	-------

Etxepare, J. (2017)